

**25**  
**hh**  
hik hasi **URTE**

**Ikuskaritza zerbitzuak**  
**Generoaren eraikuntzaren kontzientzia**  
**Emozioak lantzen Haur Hezkuntzan**  
**0-6 formazioko ikasleen balorazioa**  
**COVID-19aren Liburu Zuria**  
**Tabakalera: Situ-akzioak**  
**Iñaki G. Murua**

9  
5  
2




“ Neska ijitoen ikasketa-maila hobetzera bideratu behar ditugu indarrak, debateak alboratuta ”

**ANDREA KHALFAOUI**

# KATTA

ZURE ABENTURA-LAGUNA



MIREN AGUR MEABE • LOTURA FILMS

elkar

[www.elkarargitaletxea.eus](http://www.elkarargitaletxea.eus)

# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## IKUSKARITZA ZERBITZUAK

Ikastetxeek, irakasleek eta zuzendariak ikuskariekin dituzten harremanak askotarikoak dira, batzuk hobeak eta beste batzuk ez hain onak. Horren jakitun dira ikuskariak, eta badakite hezkuntzaren eta ikasleen kalitatea zaintzeko eta bermatzeko jarri zaien egitekoa ez dela erraza. Lan horren antolaketaren, jardunaren eta hobetzeko alderdien argazki bat egin da erreportaje honetan.

## ELKARRIZKETA / 16

### ANDREA KHALFAOUI LARRAÑAGA

Gasteizko Sansomendi ikas-komunitateko Haur Hezkuntzako praktikan kokatu du bere doktorego tesia Andrea Khalfaoui Larrañagak (Donostia, 1993). Ijito jatorriko ikasleria gehiengo zabala den ikastetxe horrek lortzen dituen emaitza akademiko eta sozialak Hezkuntza Jarduera Arrakastatsuen bidez erdiesten ditu eta horietako jarduera batean zentratu da Deustuko Unibertsitateko irakaslea: talde elkarreragileetan.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPIZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Mikel Agirrezabala, Miren Azkarate Badiola, Ainhoa Azpirotz eta Ainara Gorostitzu.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Elkarrizketako argazkiak: Foku.

Diseinua: Graf!k.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANtZA S.A.L Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia [2021-05-17]. Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorik haiekin.

## 5 EDITORIALA

Irakasleen zaintza, topaketa pedagogikoen erdigunean

## 6 ALBISTEAK

## 10 GAI NAGUSIA

Ikuskaritza zerbitzuak

## 16 ELKARRIZKETA

ANDREA KHALFAOUI

“Neska ijitoen ikasketa-maila hobetzera bideratu behar ditugu indarrak, debateak alboratuta”

## 24 ESPERIENTZIAK

Generoaren eraldaketak dakarrenaz kontzientzia hartzen

## 28 EKARPENAK 1

Haur Hezkuntzan emozioak lantzen

## 34 EKARPENAK 2

0-6 formazioko bizipenak eta irakaspenak

## 36 GALDEIDAZU

COVID-19AREN LIBURU ZURIA Zer proposamen egiten du COVID-19aren Liburu Zuriak hezkuntzaz?

## 39 ARGITALPENAK

## 40 PROPOSAMENA

Tabakalera: Situ-akzioak

## 42 ATZEKO ATETIK

Iñaki G. Murua



# Irakasleen zaintza, Udako Topaketen erdigunean

## editoriala

AURTENGO IKASTURTEAK LEZIO GARRANTZITSU BAT ESKAINI DIGU: HEZITZAILEAK ZAINDU BEHAR DIRA. HORREXEGATIK, AURTENGO UDAKO TOPAKETETAN IRAKASLEEN LANARI AITORTZA ETA ERREKONOZIMENDU BEREZIA EGIN NAHI DIE **HIK HASIK**.

Zaila izan da, ari da izaten, ikasturte hau. Gaitza. Tentsio eta exijentzia handikoa zentzu askotan, eta bereziki irakasleek bizi izan dituzue zeuon azalean estres eta eskakizun horiek. Osasun krisiak izugarri baldintzatu du hezkuntza praktika, baldintzatu ditu harremanak, neurtu eta zurrundu, eta irakasle askok zeuon lanean ez ezik zeuon larruan sentitu duzue gogortasun hori. Datu bat: EHUko Hezkuntza Fakultateko diziplinarteko talde batek 2020-2021 ikasturtearen hasieran irakasleek bizi izan duten sintomatologia psikologikoa aztertzeko egindako ikerketa baten arabera, galdekatutako irakasleen % 50,6k estresa zutela adierazi zuten.

COVID-19aren krisiaren kudeaketak arrasto larria utzi du irakasleengan. Horra lezioa: irakasleak zaindu egin behar dira. Ikasturte honek lezio asko jarri dizkigu mahai gainean, baina hezitzaileen zaintza erdigunean jarri behar da, urgentziaz.

Aurtengo Udako Topaketa Pedagogikoetan irakasleen lanari aitortza eta errekonozimendu berezia egin nahi die **Hik Hasik**. Osasungin-



tzako profesionalekin batera, lehen lerroan egon zarete irakasleak, ikasgelak eta eskolak foku askoren pean kudeatu behar izan dituzue, eta egindako lan hori nabarmendu egin behar da, balioetsi, eskertu, aitortu. Eta ezinbestean zaindu egin behar da. Horrexegatik zaintzari leku berezia egingo die **Hik Hasik** 25. urteurreneko Udako Topaketa Pedagogikoetako hainbat ikastarotan. Hezitzaileen ongizatea lehentasunezko ardatz gisa hartu behar delako.

Zaintzari eskainiko diogu, halaber uztailearen 5ean egingo dugun Bigarren Hausnarketa Kolektiboa ere. Iazko ikasturtea konfinamenduak baldintzatu zuen, eta orduko hartan ere atera genuen lezioa: pantailaz beste zeuden ikasleak zaintzeak zer-nolako garrantzia zeukan ikusi genuen, “zer moduz zaude?” batek daukan balioaz inoiz baino gehiago jabetu ginen. Eta irail hau hasi zenean *txip* horrekin hasi zenuen hezitzaileok zeuen jarduna, urduritasun eta ziurgabetasun egoera hauetan txera bereziz zainduz ikasleen egoera emozionala. Bada orain, hel diezaiogun aurtengo ikasturteak eskaini digun lezioari: hezitzaileak zaindu behar dira, zuek gabe ez dago hezkuntza-prozesurik.

---

“XVIII. mendeko ekonomialari frantsesak dira, ez Kant, mundu ekonomikoa eta morala birstortu nahi izan zutenak, eta, horretarako, hezkuntza unibertsalean tematu ziren. Ez, eskubide natural edo unibertsal gisa duen balioagatik, baizik eta ordena ekonomiko berria soilik ordena politiko berri baten bidez antola zitekeelako. Eta hori, hezkuntza unibertsal baten bidez bakarrik heda zitekeen”

Jule Goikoetxea

# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

## KONSTITUZIO KONTSEILUAK BI ARTIKULU INDARGABETU OSTEAN, MACRONEK HIZKUNTZA GUTXITUEN KONTRAKO LEGEA SINATU DU

Frantziako Konstituzio Kontseiluak Hizkuntza gutxituen aldeko legea atzera bota zuen maiatzaren 21ean, 4. eta 9. artikulua Frantziako Konstituzioaren aurkakoak direla esanez. Hau da, murgiltze eredia Konstituzioaren aurkako zela ondorioztatu zuen eta baita frantsesak bere ez dituen zeinu diakritikoak (adibidez "ñ") dokumentu ofizialetan erabiltzea ere. Konstituzio Kontseiluaren erabakiaren ondotik, Asanblea Nazionalak legea berrikusi ahal izatea eskatu zuten hainbat diputatuk, baina bi egunera legea sinatuta aukera horri atea itxi zion Emmanuel Macron presidenteak. Gauzak horrela, bere horretan sartu da indarrean legea eta, orain, Frantziako Konstituzioa aldatzea da aukera bakarra eskualdeko hizkuntzei eta, beraz, euskarari kendutako babesa emateko. Ondorioz, murgiltze eredia ez da sartuko

Frantziako Hezkuntza Kodean eta beraz, Ipar Euskal Herriko ikastetxe publikoetan euskaraz osoki ikasteko aukerari atea itxiko zaio.

Euskalgintzak eta hezkuntza eragileek gogor gaitzetsi zuten Konstituzio kontseiluaren ebazpena eta Eneritz Zabaleta zuzenbide doktoreak adierazi zuen "gerla deklarazio bat" izan dela Gobernuaren neurria. Haren aburuz, Seaska bera zalantzan jar lezake, ebazpenaren arabera itunpeko eskola izateko ezin baita murgiltze eredia proposatu. "Ondorioz, Seaska, Diwan eta Calandreta, estatuarekin kontratupean izanik, konstituzioaren kontrakoak dira. Estatuak kontratu horiek ezeztatuko ditu? Ilegalitatean kontratuak atxikiko ditu? Zer egingen du ministerioak? Sekulako ziurgabetasuna zabaltzen da Seaskarentzat".

## SKOLAEREN KONTRAKO EPAIA BERRETSI DU ESPAINIAKO AUZITEGI GORENAK

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren irizpidea bere eginik, Skolae hezkidetzaren programaren aurkako sententzia berretsi du Espainiako Auzitegi Gorenak. Auzitegiak ez du onartu Nafarroako Gobernuak iaz aurkeztutako helegitea. Madrilgoak ere "huts bat" antzeman du tramitazioan. Iazko ebazpenean, Nafarroako Auzitegi Nagusiko epaileek argudiatu zuten Skolae "araudi baten gisara" tramitatu beharra zegoela. Hori berretsi du Gorenak orain, eta auzibidearen kostua ordaindu beharra ezarri dio Nafarroako Gobernuari. Haatik, Programa "normal" ematen segituko dutela ziurtatu du Nafarroako Gobernuak.

## IRUÑEKO HAUR-ESKOLETAKO 165 FAMILIA, EUSKARAZKO LERRORIK GABE

Urterik urte euskarari lekua kendu dio Iruñeko Udalak bere haur-eskoletan. Datorren ikasturtean are handiagoa izango da murrizketa: behin-behineko matrikulazio zerrenden datuak aztertu ditu Haur Eskoletako Gurasoak taldeak, eta salatu du "165 familia euskarazko eredurik gabe" utziko dituela Navarra Suma buru duen udalak. Euskarazko postuen murrizketa "gradualki, era mailakatuan eta inor baztertu gabe" egingo zuela iragarri zuen Enrique Mayak, baina ez du hitza bete.

## EUSKO JAURLARITZAK ESKOLAKO EHUN JAZARPEN KASU ATZEMAN DITU

2019-2020 ikasturtean eskolako ehun jazarpen kasu identifikatu zituzten Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeetan, Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera. Erakundeak ziurtatu duenez, kasu gehiago identifikatzen dituzte ez jazarpena areagotu delako, baizik eta sentsibilizazio handiagoa dagoelako. Atzemandako kasu gehienak (63) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan gertatu ziren, eta gainerakoak, Lehen Hezkuntzan. Haur Hezkuntzan, berriz, ez zuten eskola jazarpenik hauteman. 2008-2009ko ikasturteetik bildutako bigarren daturik txarrenak dira.



Mondragon  
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea

**TEAMLABS!**  
Look again/Think again/  
Do again/

# Hezkuntza-olatu berri baten parte izan nahi duzu?

**IKASKUNTZA ERRAZTEN ETA BERRIKUNTZAN  
UNIBERTSITATE MASTERRA (Lit)**

Ikastetxeetan zein  
erakundeetan gauzak egiteko,  
pentsatzeko eta ikasteko  
modu berriei behar bezala  
erantzuteko gaituko zaitugu.

## ANIMATZEN ZARA?

# Lit,

Learn.  
Innovate.  
Teach each other.

**Ikaskuntza Errazten  
eta Berrikuntzan  
Unibertsitate Masterra (Lit)**

**90 ETCS**

**Online (+ workshop presentzialekin  
Bilbon eta Madrilen)**

**Euskara edo gaztelania**

**PRESTA ZAITEZ  
ERRAZTAILE  
IZATEKO!**

[www.mondragon.edu/lit](http://www.mondragon.edu/lit)




## 25. URTEURRENEAN, 25 IKASTARO IZANGO DIRA HIK HASIREN UDAKO TOPAKETA PEDAGOGIKOETAN

laz bertan behera gelditu ziren Udako Topaketa Pedagogikoak, osasun krisiaren ondorioz. Aurten, ordea, indarturik etorriko da 21. Topaketetako eskaintza: **Hik Hasi** egitasmo pedagogikoak 25. urteurrena duen ikasturte berezi honetan, 25. ikastaro eskainiko dira.

Uztailaren 5ean, 6an eta 7an izango dira topaketak, eta ikastaro guztiak EHUren Donostiako HEFA fakultatean (HEFA I eta HEFA II eraikinetan) izango dira 9:00etatik 14:00ak arte. Uztailaren 5ean, 16:30ean, Bigarren Hausnarketa Kolektiboa egingo da. Iazko uztailaren 1ean egindako esperientzia arrakastatsuen ildotik, hainbat ikastetxetako esperientziak partekatuzeko parada izango da bertan, irakasleen zaintzari aitortza eginez.

Ikastaroei dagokienez, tematika zabalekoak dira, eta horien artean batzuk berriak dira, esate baterako, Ibon de La Cruzek estresa eta antsietari begiratuko die COVID-19aren testuinguruan; Miren Camisonek barnekotasunari buruz eskainiko duena ere berria izango da; Naiara Gorroñok meditazioa oinez egiteko eskainiko duen aukera; irakasleak indartzeko Saionara Barrenak eta Naiara Jimenezek aurkeztuko dituzten baliabideak; edota Eider Zuriarrainek eskainiko duena ere berria da: *Gorputza eta bizipena; baliabide pedagogikoak*.

Ekainaren 15a arte egongo da zabalik izen-ematea [www.hikhasi.eus/formazioa](http://www.hikhasi.eus/formazioa) helbidean. Ikastaroei kopuru mugatuak dituzte eta **Hik Hasiko** harpidedunek lehentasuna izango dute eta, ondoren, aurrena izena eman dutenek. **Hik Hasi** ko harpidedunek prezio berezia izango dute.



- Barnekotasuna hezkuntzan: norberaren zaintzak besteak zaintzea dakar
- Haur Hezkuntzako haurren ekintzen zentzuak
- Jolasaren bidezko heziketa sortzailea
- Eskoletako kanpo espazioak jolaserako espazio al dira?
- Askatasuna: mugatutako errealitate batean, desioak gauzatzeko tresna
- Dislexia
- Heriotzaren lanketa
- Mugak jarri autoestimua zainduz
- Bitartekaritza bost pausotan
- Kontaidazu istorio bat
- Haurrak kontalari
- Antzerki teknikak: hezkuntzarako tresna pedagogikoa
- Estresa eta antsietatea COVID-19aren garaian
- Ahalduntze emozionala irakasleen gaitasun pedagogikoak hobetzeko
- Familia eta eskolaren arteko elkarlana ikuspegi sistemikotik
- Zuzendaritzarako formakuntza sistemikoa
- Irakasleak indartzeko baliabideak, gaur egungo egoeratik abiatuta
- Pedagogia sistemikora hurbilketa
- Zirimiri: oinarritzko yoga teknikak ikasgelatan ongizatea lantzeko
- Yoga eta kontzentrazio teknikak eskolan
- Yoga eta ipuinak uztartuz
- Meditazioa oinez naturan
- Mindfulness-a (Arreta Osoa) eta gogo-aldartearen kudeaketa hezkuntzan
- Gorputza eta bizipena; baliabide pedagogikoak
- Budapesteko PIKLER-LOCZYko 0-3a

# HIZPIDE IZANGO DA

## BERTAN BEHERA UTZI DUTE EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA

Ekainaren 6an Bastidan egitekoak ziren Euskal Eskola Publikoaren jaiak, baina EHIGE ikastetxee publikoetako ikasleen gurasoen elkarteak jakinarazi duenez, pandemiaren ondorioz, aurten ere bertan behera utziko dute jaiak. Datorren urteko festari eusteko "gogoz" daudela jakinarazi dute, eta hura bai Bastidan egingo dutela azaldu dute. Bestalde, Ibilaldiak eta Araba Euskarazek euren urteroko jaiari eutsiko diote, egokituta bada ere. Lehendabizikoa Sopelan egingo dute maiatzaren 30ean, Ander Deuna eta Betiko ikastolek antolatuta. Bigarrena Laudion ekainaren 20an.


## 'COVID-19AREN LIBURU ZURIA'-N HEZKUNTZAZ HAUSNARTU DUTE

Arlo askotariko 40 profesional eta ikerlarik baino gehiagok *COVID-19aren Liburu Zuria* plazaratu dute, pandemia-ri erantzuteko proposamen zehatzak bilduz, hezkuntzan, osasungintzan, arlo sozialean eta ekonomian. Birusak hezkuntzan eragindako kalteak aztertzeko, bi atal bereizi dituzte: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza, eta Unibertsitateko ikasketei dagokiena. Ondorio nagusia bera da bi esparruetan: "Hezkuntzak lehenagotik zekarzkieen egiturazko arazo zenbait azaleratu dira, larritu ere bai, ez gutxitan". **Hik Hasik** bertan parte hartu du.

## TXIKIPEDIARAKO 266 SARRERA BERRI ARGITARATU DITUZTE IKASLEEK

Euskal Wikilariak Elkartearen erronkari eutsiz, 18 ikastolatak ikasleek 266 sarrera berri argitaratu dituzte Wikipedian eta laster 290 izanen dira. Ikastolen Elkartearekin batera garatutako "Nik, zuk, guk... 250 bai?" proiektuaren bitartez batez ere emakumeen biografiak gehitu dituzte, bereziki emakume zientzialarienak, baina baita artista, aktore, musikari, legelari, kirolari eta abarrenak ere. Proiektu honekin sarean nabigatzeko hizkuntza ohituretan eragin nahi da, askotan nahi den hori euskaraz bilatzeko zailtasunak izaten baitira Interneten.

Filosofiatik  
bizitza  
erdigunean



Hezkuntzarako  
**web atari berria**  
[www.filosofiafaktoria.eus](http://www.filosofiafaktoria.eus)



### Eraldaketerako hezkuntza filosofiatik:

- Ikasleen pentsamendu kritikoa bultzatzeko irakasteentzako prestakuntza ikastaroak.
- Elkarrizketaren balioa ikasgelan; besteekin izatea eta pentsatzea.
- Galderak egitearen artea.
- Barne-isiltasunetik entzuten ikastea.

Baliabideak eta bide berriak,  
**[www.filosofiafaktoria.eus](http://www.filosofiafaktoria.eus)**



Asmoak eta helburuak onak izan arren, ez da eskertza handia duen lanbidea ikuskariena. Hezkuntza sistema hobetzea dute misio, eta horretarako araudiak betetzen direla bermatu behar dutenez, ez da lan samurra batzuetan. **Hik Hasirekin** hitz egin duten Euskal Herriko ikuskariak horren jakitun dira, baina ez diote euren eginkizunari muzin egiten horregatik. Are gehiago, ahalik eta ondoen egiten saiatzen dira denek partekatzen duten filosofia batean oinarrituta: abiapuntutzat ikaslearen ongizatea eta eskubideak hartzen dituzte; zuzendariekin, ikastetxeekin, irakasleekin, ikasleekin eta familiekin hartu-emanak izateari garrantzi handia emate diote; erabakiak beti argudiatzea funtsezkotzat dute; kanpoko begiradatik aholkuak emateaz arduratzen dira; eta ikuskarien artean praktika onak partekatzea aberasgarri jotzen dute.

# GAIA: IKUSKARITZA ZERBITZUAK

Hezkuntza zaintzea eta bermatzea xede

**Z**orte handia izan dugu, ikuskari ona tokatu zaigu, hurbilekoa”, “ikuskaria etengabe gainean daukagu”, “ikuskariaren baimenik gabe ezin dugu ezer egin”, “proposamenak beti ongi argudiatu izan ditugu eta ikuskariek onartu izan dizkigute”, “gure ikuskariari paperak ongi betetzea interesatzen zaio, besterik ez”, “gure eraldaketarako ikuskaria bidelagun ona izan dugu”. Badira uzkur edo beldur direnak ikuskaria ikastetxera etortzen delarik eta badira lasai egoten direnak ere. Esperientziak eta bizipenak adina iritzi daude ikuskariei buruz, eta kontrolatzeko daudela pentsatzeak edo laguntzeko daudela pentsatzeak erabat baldintzatzen du hezkuntzako ikuskaritza zerbitzuaren gaineko irudia, iritzia eta hartu-emanak. Gizartean oraindik ere aski pisua duen irudi ezkorra gainditu nahian egiten dute lan Euskal Herriko ikuskaritza zerbitzuek, haien misioa hezkuntza sistema hobetzea dela sinetsita eta xede hori lortzera begira jarrita. “Araudiak hezkuntza ikuskaritzari ezarri dion misioa hezkuntzaren eta gure ikasleen kalitatea zaintzea eta bermatzea da, hezkuntza sistemak arauak bete ditzan eta hezkuntza komunitateko pertsona guztien esku-bideak eta betebeharrak berma ditzan”. Nafarroako Hez-

kuntza Ikuskaritza Zerbitzuko zuzendari Alberto Urrutiak ematen duen definizioa da.

## Antolaketa orokorra

Nafarroako Hezkuntza Ikuskaritza Zerbitzuaren antolaketa bi motatakoa da, bata eremu geografikoen arabera eta bestea lan esparruen arabera. Lehen antolaketan lau eremutan banatua da, bi iparraldean eta bi hegoaldean. Iparraldeko ikuskariek euskarako profila dute eta hegoaldekoek gaztelaniakoa.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 88 ikuskari dira gaur egun eta lurraldeka eta eremuka daude antolatuta. Lakuako egoitzan ikuskari nagusia eta hari laguntzeko hiru ikuskari zentral daude. Araban Gasteizen dago ikuskaritza zerbitzua 11 ikuskarirekin. Gipuzkoan hiru ikuskaritza zerbitzu daude, bata Eibarren, bestea Donostia-Irunen eta hirugarrena Lasarte-Tolosan. Bizkaian lau eremutan banatzen dira: Durangon, Getxon, Bilbon eta Ezkerraldean. Gune bakoitzean 11-15 ikuskari bitartean daude; zenbat eta ikastetxe gehiago eta handiagoak izan, ikuskari gehiago.

## GAIA: IKUSKARITZA ZERBITZUAK

Hezkuntza zaintzea eta bermatzea xede

Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan antolaketa beste era batekoa da: ikuskari batzuk Lehen Mailako (3-11 urte) eskoletako ikuskariak dira eta beste batzuk kolegio eta lizeoetakoak (11-16 urte). Lehendabizikoak ikuskari orokorrak dira, gai edo diziplina guztiak lantzen dituzte eta bigarrenkoak diziplinarioak edo gaitan berezituak dira; hau da, Matematikako ikuskariak, Frantseseko ikuskariak, Historia-Geografiako ikuskariak... eta Euskarako ikuskaria daude. Bakoitzak bere gaia du eta horren jarraipena egiten du. Lehen Mailako ikuskariak departamenduaren arabera antolatzen dira, eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa Pirinio-Atlantikoetako departamenduan dira. Bigarren mailakoak, aldiz, Akademiaren arabera antolatuak dira, hau da, Pirinio-Atlantikoetako departamenduaz gain, beste bost departamenduk osatzen dute akademia eta gune zentrala Bordelen da. Handik erabakitzen da, beharren arabera, zenbat ikuskari izanzen diren. Esate baterako, Matematikan, Ingelesean eta Historia-Geografian bost ikuskari dira, beste gai batzuetan gutxiago, eta Euskararentzat bat, zeinaren lan eremua Iparraldea den. Lehen Mailan bost ikuskari daude eta horietatik bat euskararentzat berezitua da. Ikuskari bakoitzak bere laguntzaileak ditu, aholkulari pedagogikoak deituak. Iparralde guztian euskaldunak diren hiru ikuskari daude — Baionan bi eta barnealdean bat —, Euskarako ikuskariarekin batera Euskarako irakasleen jarduna ikuskatzen dutenak gela elebidunetan eta ikastoletan.

### Lan esparruak eta zereginak

Antolaketa horien barruan, lan egiteko esparruak definituta dituzte. Iparraldean, ikuskari guztien lan nagusia pedagogia



mailan irakasleek nola lan egiten duten ikuskatzea da. Ez dute parte hartzen eskolaren antolakuntzan, eskolak berak badu autonomia bere gauzak antolatzeko — betiere estatu mailan dauden programak eta eginbeharrak errespetatuz —, eta ikuskariak ikusi egiten du, zuzenki parte hartu gabe. Zerbait berezia gertatzen bada deitzen dute ikuskaria, bestela ez. Jakes Sarraillet da Iparraldean Bigarren Mailan Euskara arlorako dagoen ikuskari bakarra eta haren lanik garrantzitsuena arlo pedagogikokoa dela azpimarratzen du. “Ikastetxeetara joan, irakasleekin mintzatu, egiten duten lana ikusi, gauzak hobeki egiteko aholkuak eman eta ondotik txosten txiki bat idazten dugu. Horrek laguntzen du irakaslea mailaz goratzeko eta hobeki ordaindua izateko”. Arlo horrez gain, beste bi eremutan ere jarduten dute. Bata antolaketan. “Adibidez, erreforma bat egiten delarik Ministeritzan, erreforma horiek pasarazi behar ditugu ikastetxeetan, esplikatuz, antolatu eta irakasleak formatu. Eta horretan denbora asko pasatzen dugu”, dio Sarrailletek. Bigarren eginbeharra azterketen prestatzea da. “Euskara mailan ikasleen hainbat azterketa pasa ditzakete, erraterako, Baxoa eta kolegio amaieran B2 proba. Eta hor euskarako azterketak prestatu behar izaten ditugu. Eta irakasle izateko oposaketan ere bai, bereziki lehen mailako irakasleen prestatetan, euskarazko gaiak prestatzen ditugu elebidun sailean irakasle izango direnentzat”.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikuskariak ere hiru lan esparru dituzte Maite Ruiz Hezkuntza Ikuskaritzako ikuskari nagusiak kontatzen duen moduan. “Alde batetik, ikastetxeak ikuskatzen ditugu, haien funtzionamendua eta zerbitzua ahalik eta hoberenak izan daitezen. Bestetik, gizartearen eta hezkuntza komunitatearen eskubideak eta betebeharrak bermatzea da gure egitekoa, batez ere hezkuntza eskubideak. Irakasleek, zuzendariak, familiak, ikasleek edota herritarrek zalantzak dituztenean guregana jotzen dute eta erantzuten saiatzen gara. Eta azkenik, administrazioari hezkuntza sistemaren inguruko informazioa ematen diogu, gero beraiek informazio horrekin eta aldagai gehiagorekin erabakiak har ditzaten. Esate baterako, COVID-19aren datuak ematen dizkiegu egunero-egunero eta horrek erabaki aproposak hartzen laguntzen die”.

Nafarroaren kasuan, arestian esan bezala, eremuka eta lan esparruaren arabera antolatzen dira, eta bigarren sailkapen horri dagokionez, Urrutiak dio bost arlo nagusi dituztela: planifikazioa, langileen antolaketa, eskolatzea, elkarbitza eta ebaluazioa. “Planifikazioarekin ikastetxe bakoitzak ume kopuruaren arabera zenbat talde behar dituen erabakitzen da; eta horren ondoren behar den langile plantillaren antolaketa egiten da. Hirugarren arloan, eskolatzeari dagokio-

## GAIA: IKUSKARITZA ZERBITZUAK



nean, ikasleen onarpena, matrikulazioak eta horrelakoak bideratzen dira. Elkarbizitzari dagokionez funtzionarioen eta bitartekoen diziiplina-espedienteak, irakaskuntza trebakuntzak eta abar bideratzen dira. Eta ebaluazioaren arloan irakasleen, zuzendarien, ikastetxeen eta praktiketako funtzionarioen ebaluazioa egiten da. Arlo hau oso garrantzitsua da eta horren aldeko apustua egin nahi dugu berau indartuz. Pandemiaren aurretik hasiak ginen eta ea datorren ikasturtean gauza gehiago egiteko aukera dugun”.

## Jarduerak gidari

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan hiru lan esparruetan aritzeko mota askotako jarduerak eramaten dituzte aurrera. “Gaika antolatzen ditugu gure esku-hartzeak eta gai bakoitzean azpiprozesu ugari edukitzen ditugu”, azaltzen du Ruizek. Ikastetxeetan, esate baterako, kalitatezko hezkuntza ematen dela bermatzeko jarduerak egiten dituzte. “Aurten, adibidez, COVID-19ak markatutako ikasturtean, ikastetxeek arazo eta behar gehien non izango zuten aztertu genuen, eta horren arabera jarduera bat egokitu dugu”. Jarduera guztien jarraipena egin ondoren, beti aholkuak ematen dituzte: hau da, ikastetxeek zer hartu beharko luketen kontuan egoera jakin hori hobetzeko. Ikastetxeko urteko planak eta memoriak ere aztertzen dituzte, helburuak kontrastatuz eta hausnarketara bultzatzeko galderak eginez: “Zuen beharrak ikusita egokiena hori dela pentsatzen al duzue?”. Ebaluazioaren gaia ere oso presente dago ikuskarien lanean. “Alde

batetik, aholkularitza egiten dugu eta bestetik ebaluazio diagnostikoaren jarraipena eta emaitzen azterketa —dio Lakuako ikuskari nagusiak—. Emaitzak interpretatzen eta gero urteko planetan horrekin lotutako hobekuntza planak sartzen laguntzen diegu ikastetxeei eta zuzendariari, guk daukagun kanpoko ikuspegiarekin eta objektibotasunarekin lagundu diezaiekegulako”. Zuzendarien eta irakasleen ebaluazioari ere arreta jartzen diote. Irakasleen ebaluazioa egiteko geletan sartzen dira, autoebaluazioa egiteko dokumentuak ematen dizkiete irakasleei eta ondoren elkarrizketa profesional bat egiten dute: “nola ikusten duzu zeure burua, nik nola ikusten zaitut eta zer egin dezakegu hobetzeko”. Zuzendarien kasuan gauza bera. “2009az geroztik gabil-tza zuzendarien ebaluazioa egiten eta datorren ikasturtean zuzendarien % 68 proiektua izango duten zuzendariak izango direla aurreikusten dugu. Guretzat oso garrantzitsua da zuzendari batek proiektu bat izatea, jarraipena izatea eta egonkortasuna egotea. Zentzu horretan, zuzendariak egiten ari diren horretan hausnartzera bultzatzen ditugu eta material asko dugu horretan laguntzeko. Eta, noski, hausnarketaren ondoren eta elkarrizketa profesionala eginez, aholkuak ematen dizkiegu: ‘agian bide honetatik joanda emaitzak hobeak izango lirake’ eta horrelakoak.”

Eskubide eta betebeharren arloan jorratzen dituzten gaien artean daude bizikidetzaren inguruko jazarpenaren jarraipena, absentismoa, noten erreklamazioak eta gatazken kudeaketak. “Absentismoaren kasuan, aipagarria da oso

# GAIA: IKUSKARITZA ZERBITZUAK

Hezkuntza zaintzea eta bermatzea xede

baxua dela hemen, Europan baino baxuagoa”, dio EAEko ikuskari nagusiak. “Eta arlo honetan, konfinamenduaren ostean, prozedura berri bat gehitu dugu: ziurtagiri bat eskatuta — 100 baino gutxiago izan dira eskatu dutenak — baimena edo aukera eman zaie etxetik jarraitzeko, hau da, eskolatze ez presentzialarekin jarraitzeko eta, beraz, absentismo ez presentziala neurtzen ari gara. Zeren nahiz eta osasun arrazoiengatik ikaste-irakaste prozesua etxetik jarraitzeko baimena eman, jarraitzen dutela ziurtatu behar dugu. Konpromiso batzuk bete behar dituzte. Adibidez, astebetean konektatu gabe egoten baldin badira eta ez badute justifikatzen, absentismotzat hartzen dugu. Kasu horietan ikastetxeekin eta familiekin harremanetan jartzen gara. Alde horretatik nahiko zorrotzak gara, zentzu onean”.

Administrazioari begira egiten duten lanen artean dago Lan Eskaintza Publikoetan, atxikipenetan eta abar jardutea. Kasu horietan, Ruizek dio ikuskarien lana dena dagokion bezala egiten dela bermatzea dela. “Guk objektiboak izan behar dugu eta prozedura guztiak berme osoarekin egiten direla ziurtatzeko gaude. Gizarteak jakin dezala inolako presiopean egon gabe objektibotasunez jokatzeko duen erakunde bat dagoela. Niretzat oso garrantzitsua da ikuskaritzak gizarteari konfiantza hori eskaintzea”.

## Erabakiak, beti ongi argudiatuta

Ikuskarien iradokizun guztiak ez dira begi onez hartuak izaten ikastetxeen aldetik, eta horrek ikuskarien eta ikas-

tetxeen arteko harremanak zaildu egiten ditu. Ikuskaritza zerbitzuak araudia betetzen dela bermatzeko daude, baina Eusko Jaurlaritzako ikuskari nagusiak dio garrantzitsuenak ez direla araudia betetzeko agertzen diren prozedurak, baizik eta araudiaren zentzua. “Araudi bat zerbaitegatik sortzen da, normalean gauzak ordenatzeko eta aukera berdintasunaren printzipioa bermatzeko, eta gu horren arabera interpretatzen saiatzen gara”. Horrek, batzuetan, ezezkoak esatera eramaten ditu, “baina ezetz esan behar dugunean zergatik esaten dugun azaltzen saiatzen gara. Ez da kapritxo bat izaten, zentzua erabiltzen dugu eta arrazoi bat egoten da. Horregatik, erabakiak argudiatzea oso garrantzitsua da, jendeak uler dezan zergatik hartzen diren erabakiak edota zergatik esaten den batzuetan ezetz. Erreferentzia beti ikaslearen hobebeharra, ongizatea eta eskubidea izaten da. Hori da lehenengoa”.


## Hobetzeko gakoak eta erronkak

Gaur egun egiten duten lanaren gaineko ebaluazio bat eskatuta, Sarrailletek argi du zer hobetuko lukeen edo zer norabide aldatuko lukeen. “Ditugun zereginen artean arlo pedagogikoa pisua galtzen ari da. Pena ematen dit gure pedagogia mailako lana gutxitzen edo indarra galtzen ari dela ikusteak antolaketaren onetan. Iruditzen zait pedagogiko laguntza hori galtzen ari dela. Adibidez, erreforma bat ezarri zen orain dela bi urte eta horrek aldaketak ekarri ditu: lehen guk erabakitzen genuen nor joanen ginen ikusterat eta maizago ikusten genituen irakasleak. Aldiz, orain Ministeritzatik ukaiten dugu nor ikusiko dugun, handik ukaiten dugu ikusi behar dugun irakasleen zerrenda, ez dugu guk erabakitzen. Ondorioz, gutxiago ikusten ditugu irakasleak eta laguntza alderdi hori apaltzen ari da. Ez da erabat desagertuko, baina administratiboagoak bilakatzen ari gara pedagogikoagoak baino. Eta nik uste dut hori kalterako dela”. Irakasleak gutxiago ikusten dituzte, gutxiago ezagutzen dituzte eta harremanak ez dira hain estuak. “Ikusiko da denborarekin nola bilakatuko den, baina harreman horiek galtzen baldin baditugu, konfiantzako harremana ere emeki-emeki desagertzen da, ez da sortzen. Alegia, ez da konfiantza galtzen duzulako, baizik eta ez dela sortzen jendea ez baduzu ezagutzen: ez dituzu ikusten, ez dituzu ezagutzen eta, orduan, konfiantza hori ez da sortzen. Adibidez, orain dela hiru urte sartu ziren irakasle berriak bi aldiz bakarrik ikusi ditut eta ezin dut esan ezagutzen ditudanik. Besteak, zaharragoak direnak, askoz hobeki ezagutzen ditut”.

Ruizek ere begiz jota ditu hainbat hobekuntza esparru, izan



## GAIA: IKUSKARITZA ZERBITZUAK



ere, ikuskaritza zerbitzuaren misio, bisio eta balore aldaketa bat egiten ari dira. “2016an ikuskaritza arautzen zuen dekretua atera zen eta geroztik hausnarketa prozesu batean sartuta gaude eta lan handia egiten ari gara berrikuntza prozesu horretan. Geure buruari galdera batzuk eginez abiatu genuen hausnarketa: zer ekarpen egiten diogu gizarteari? Gure lanak zer ematen dio? Zer ematen diogu eta zer eman diezaiokegu gizarteari, hezkuntza sistemari, ikastetxeei, irakasleei, ikasleei, familiei? Zer paper dauka ikuskaritzak hezkuntza sistemaren hobekuntzan? Eta lehen hausnarketa horren ondoren bigarrena etorri zen: zer gehiago egin dezakegu?”.

Galdera horiei erantzunak aurkitzeko kanpoko iritzien bila jo dute, ikastetxeek, zuzendariak, irakasleek, ikasleek eta familiek zer erantzuten duten jakin nahi dutelako, eta poliki-poliki komunikazio bideak irekitzen ari dira ikuskariengandik zer nahi duten, zertan lagun diezaeketen eta zertarako behar dituzten jakiteko. Horrekin guztiarekin lan egiteko filosofia bat sortu nahi dute ikuskaritza zerbitzuan, eta horrexegatik, ikuskari denak ari dira parte hartzen prozesu honetan. “Ikuskari bakoitzak bere izaera eta egiteko modua izango ditu, baina jarduera guztiek erreferentzia filosofiko bera izateak gure lana aberasgarriago bihurtzen du”, baieztatzen du Ruizek. “Guk ikuskari eredu bat sortu nahi dugu, sortzen ari gara. Gure lana hurbiletik jarraitzen dutenek, ikastetxeek, ikusten dute gure lana erabat aldatu dela, baina gizartean oraindik antzinako ikuskarien irudiak dirau. Kostako da aldatzen, baina horretan ari gara”.

Nafarroako ikuskaritzako zuzendariak azpimarratzen du eurek hezkuntzaren ebaluazioaren aldeko apustua egin dutela: irakasleen, zuzendaritza funtzioaren, zentroen... ebaluazioan. “Zehazki ikuskaritza zerbitzuari dagokion zeregina da ebaluazioarena, araudiak dioen moduan, eta gure helburua ebaluazioaren kultura garatzea da, orain arte ez baita landu ez hemen ez gainerako lekuetan. Itxaropen handiak jarri ditugu norabide horretan, eta COVID-19ak orain arte asko garatzen utzi ez badigu ere, datorren ikasturtean bultzada serio bat emateko moduan egotea espero dugu”.

Leku batean zein bestean ikuskariaren prestakuntzari garrantzi handia ematen diote eta baita gainerakoekin partekatzeari ere. Praktika onak partekatzen dituzte eta Urrutiak dioen moduan, “beti da oso emankorra beste lekuetako gure lankideek zer egiten duten ezagutzea. Leku guztietatik ikas daiteke eta, nola ez, leku guztietatik atera daitezke ondorio interesgarriak”. Nafarroako eta EAEko ikuskariek pandemiaren ondoren berriro ere elkarlanari ekiteko esperantza dute, eta Eusko Jaurlaritzako hezkuntza ikuskari nagusiak gaineratzen du Europako kideekin ere baietz. “SICI izeneko ikuskariaren elkarte europarreko partaide gara eta egiten ditugun topaketek elkarrengandik ikasteko balio dute. Agian gauza batzuk ezin ditugu egin beste lekuetan bezala, baina ideiak hartu eta gero gurera egokitu bai, eta geurea partekatu ere bai”, dio Ruizek. Interes handiarekin egiten dute elkarren jarraipena, horrek euren misioa erdies-ten laguntzen diela jakitun.



“Gakoetan jarri dugu arreta: ijito ikasleriaren emaitzak hobetzeko zer-nolako eskolak eta ekintzak behar diren bilatu dugu”

# ELKARRIZKETA:

# ANDREA

# KHALFAOUI

## DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

---

Gasteizko Sansomendi ikastetxean kokatu du bere doktorego tesia Andrea Khalfaoui Larrañagak (Donostia, 1993). Ikas-komunitatea den ikastetxe horrek lortzen dituen emaitza akademiko eta sozialak Hezkuntza Jarduera Arrakastatsuen bidez erdiesten ditu eta horietako jarduera batean zentratu da Deustuko Unibertsitateko irakaslea: talde elkarreragileetan. Ikasle gehienak ijitoak diren ikastetxe publikoko

Haur Hezkuntzako praktika ikertu du aurrez gaiaz Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan nazioartean egin diren ikerketei ekarpena eginez. Funtzionatzen duen eta funts zientifikoa duen praktikan oinarritu behar dela ikusi du ikerlariak eta bereziki neska ijitoetan jartzen du arreta. Diskriminazio hirukoitza jasaten duten ikasle horien ibilbide akademikoa sendotu behar dela dio, aurreiritziak gaindituz.



**Hasteko, argitu ditzagun terminoak: ingelesez egin duzu doktorego tesia, 'Pathways for intercultural coexistence in Early Childhood Education. A Case Study' eta "Roma" darabilzu ikerketan; euskaraz, nola zuzendu behar gara ijito herriaz mintzatzean errespetuz aritzeko?**

Bai, Roma esatean guztiok ulertzen dugu errespetuz ari garela eta euskaraz ere *ijito* edo *ijito herria* esatean hala izan behar luke. Terminoa bera baino gehiago, gakoa da norberak zer-nolako kutsua erantzen dion hitz horri: oinarri positibo batekin ari garenean ez dago ezer txartzat hartzekorik *ijito herria* izendapenaren azpian.

**Tesiari honako helburua zehaztu diozu hasieratik: ikasle ijitoen eskola porrota, absentismoa eta porrot akademikoa eta eskola uzte goiztiarra prebenitzeko gakoak bilatzea. Lehendabizi, datuei begira, zein dira eskola uzte eta absentismo datuak herri ijitoari dagokionez?**

Lagin txikia izanagatik, esanguratsua den datu bat emango dut: Fundacion Secretariado Gitanok [Espainiako Estatu mailan] iaz 11.000 elkarrizketa egin zituen ijito

familiekin, eta elkarrizketa horietan ikusi ahal izan zuten ikasleria ijitoaren % 17a bakarrik iristen dela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzera. Lagina txikia dela egia da, baina datua esanguratsua da eta egoera zer-nolako den ikusteko gakoren bat ematen du.

**Emakume ijitoen kasuan eskola-uzte goiztiarraren kopurua bereziki handia da, ezta? Zergatik?**

Bai, diskriminazio hirukoitza pairatzen dute emakume ijitoek: emakume izateagatik, minoria etniko baten parte izateagatik eta ikasketa-maila baxuak izateagatik. Lehenengo biak ezin direnez aldatu eta, gainera, ez ditugunez aldatu nahi, hirugarren ardatza da heldu beharrekoa, neska ijitoen ikasketa-maila sustatu eta sendotu behar dugu, horretara bideratu behar ditugu indarrak eta alde batera utzi behar ditugu energia kontsumitzen duten bestelako debeteak.

**Zeri dagokio ikasleria ijitoak, oro har, eta neskek bereziki, batez beste, arinago uztea eskola? Uste zabaldua izan daiteke ijito kulturari lotua dagoela eskola garaiz uztea-**

**ren arrazoia, baina zuk zeuk tesian eskola garaiz uzteko arrazoietakot bat beraiek jasaten duten diskriminazioa dela diozu.**

Hori argitzea oso garrantzitsua da. Ijito kulturaren kodean ez dago ez ikasteari buruzko ezer. Gizarte bazterketa ere ez dago gure kulturaren balioen artean, beraz, ideia horien arteko bereizketa egitea oso garrantzitsua da. Ijito ikasleria getizatu egin da urtetan, aparteko eskoletan pilatu izan dira ikasle ijitoak, eta eskola horiek euren ikasleei maila eta exijentzia akademiko baxuagoak ezartzen dizkieten heinean normala da gero emaitzak ez izatea onak. Hori historikoki arrazoi garrantzitsu bat izan da ijito ikasleen ibilbide akademiko eskasaren kasuan. Gure tesia kokatzen den ikerketa lerro zabala egoera horri erantzuna ematen saiatzen da, eta gakoetan jartzen dugu arreta: ijito ikasleriaren emaitzak hobetzeko zer-nolako eskolak, ekintzak, jarduerak eta akzio konkretuak behar diren bilatu dugu.

Gakoa da errealitatea gainditzeko behar ditugun elementuak zein diren begiratzea eta aztertzea nola lagundu dezakegun ikasleen ibilbide akademikoa hobetzen. Begirada

funtzionatzen duen horretan jarri behar dugu eta hori elikatu eta garatu behar dugu, ikasle ijitoen errealitatearen inguruan eztabaidatzen denbora galdu gabe, ze ijito herriari dagokionez, aspalditik ezagutzen dugu errealitatea zein den. Horretan ari dira tesia egin dudak ikastetxean, Gasteizko Sansomendi eskolan eta baita Bilboko Elejabarrin edo beste hamaika ikastetxetan ere. Ikas-komunitate diren eskolak ebidentzia zientifikoetan oinarritzen dira eta argi erakusten ari dira gelan egiten dutenaren arabera direla, ondoren, emaitzak.

**Aurreiritzi eta aurre-espektatibek gutxiengo etniko horien ibilbide akademikoan eragin zuzena daukabela diozu: aurreiritzien ondorioz espektatiba baxuak ezartzen dira, eta horrek porrot akademikoan ondorio zuzena du, beraz, sorgin-gurpil baten gisakoa da. Nola hautsi daiteke korrelazio hori?**

Aurreiritziak elkar ez ezagutzearekin guztiz lotuak daude, eta, oraindik ere, asko falta zaigu elkar ezagutzeko. Ezezagutzak aurreiritziak sortzen ditu, eta aurreiritzietatik abiatzen bagara, errazagoa da baztertzea inklusioa lantzea baino, inklusioak akzio asko eskatzen baititu. Erosua izan ohi da eskolak desberdintasunak erreproduzitzeko soilik balio duela pentsatzea, baina ezin dugu horretan gelditu, eskolaren bidez benetan asko egin dezakegula ikusten badugu, lanketa bat egin beharko dugu.

Ikerketek aspaldi erakutsi dute aurreiritziek eta aurre-espektatibek erlazio zuzena dutela ikasleen lorpen akademikoetan. Hori, gehien bat, AEBetan ikertu da gutxiengo beltzen inguruan, baina minoria etniko guztiekin gauza bertsua gertatzen da: irakasleriaren espektatiba baxuak korrelazio zuzena du, ondoren, ikasleen errendimenduan. Gela batean begi urdinak dituzten umeak azkarragoak direla esaten hasi ziren, eta irakasleak aurreiritzi horren arabera hasi ziren ume horiek tratatzen. Egunaren bukaeran begi urdineko umeak soilik begi urdinekoekin elkartzen zirela ikusten zuten

eta beste koloretako begiak zeuzkatzen umeekin harremanak eteten hasi zirela. Oso aspaldikoa den ikerketa horrek zer pentsatu handia eman beharko liguke.

Espektatibak oso inportanteak dira, baina ekintzak ere behar dira, ekintza konkretuak. Eta hori bi orriko labana bezalakoa da: ekintza negatiboek emaitza negatiboak ematen dituzte, eta ekintza positiboek, aldiz, emaitza positiboak ematen dituzte.

**Behaketara etor gaitzen: Gasteizko Sansomendi ikastetxean kokatu duzu zure tesia, berau ikas-komunitatea da duela hamar bat urtetik eta ia osoki jatorri immigranteko haurrek eta ijitoek osatzen dute hango ikasleria. Zein dira ikastetxe horren arrakasta akademiko eta sozialaren gakoak?**

Ebidentzia zientifikoetan oinarritzen diren praktikak aurrera eramaten dituen ikastetxe bat da. Horrek esan nahi du zorrozki eta denboran zehar frogatuak dauden ekintza arrakastatsuek ari direla egiten geletan momentu oro. *Included* proiektu europarrean sartuak daude aspalditik, eta proiektu horrek sei Hezkuntza Jarduera Arrakastatsu identifikatzen ditu eta Sansomendin horiek aurrera eramaten ari dira [talde elkarreragileak; tertulia dialogikoak; gatazkak saihesteko eta ebazteko eredu dialogikoa; ikaskuntza-denbora zabaltzea; senideen formazioa eta komunitatearen partaidetza]. Proiektuaren gako garrantzitsuenetako bat familiaren parte-hartzea da, bai eskolan eta baita gelan ere. Familiak, gainera, eskolako erabakiak hartzeko prozesuetan ere oso rol garrantzitsua dute, nahiz eta asko bertako hizkuntzarekin justu-justu ibili edo gradu akademikorik ez izan, gehiengo familia ijitoko haurrak baitira eta askok ez baitaukate Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaituta, edo Lehen Hezkuntza bukatzeko ere zailtasunak handiak izan zituzten beren garaian. Eskolarentzat oso inportanteak dira familiak eta ateak erabat zabalik dauzka euren parte-hartzea bermatzeko.

**Hezkuntza Jarduera Arrakastatsu**

“Diskriminazio hirukoitza pairatzen dute emakume ijitoek: emakume izateagatik, minoria etniko baten parte izateagatik eta ikasketa maila-baxuak izateagatik. Hirugarren ardatza da heldu beharrekoa”

“Eskolek euren ikasleei maila eta espektatiba akademiko baxuagoa ezartzen dizkieten heinean normala da gero emaitzak ez izatea onak”

“Gakoa da errealitatea gainditzeko behar ditugun elementuak zein diren begiratzea eta aztertzea nola lagundu dezakegun ikasleen ibilbide akademiko hobetzen”

“Ezezagutzak aurreiritziak sortzen ditu eta hortik errazagoa da baztertzea inklusioa lantzea baino”



**horietako batean ezarri duzu fokua: talde elkarreragileetan. Talde horiek kohesio soziala eta lorpen akademikoak dakartela erakutsi du literatura zientifikoak eta baita zure tesiak ere. Zer ezaugarri dituzte talde horiek?**

Bost edo sei ikaslek osatzen dituzten talde heterogenoak dira talde elkarreragileak eta gakoa da talde txiki horiek heldu bolondres batek dinamizatzen dituela. Dinamizatu esaten dugunean ez dugu esan nahi ekintza edo testua edo *speech*-a azaltzen duenik heldu horrek, baizik eta umeen arteko elkarrekintzak sustatzen dituela esan nahi dugu, eta parte-hartze orekatua eta berdinzalea bermatzen duela ikasleen artean. Hau da, denek, gutxi gorabehera, berdintsu parte-hartzen dute, ikasle batek ez du monopolizatuko saio guztia, parte-hartze orekatua ziurtatzeko erantzukizuna baitauka boluntarioak.

**Zer lortzen dute talde elkarreragileek?**

Magia. Umeek ere horixe nabarmentzen dute: magia gertatzen da. Zientziara etorrira, alderdi akademikoan eta sozialean nabarmenak dira talde elkarreragileen emaitzak. Alderdi akademikoa oso erraz

neurtzen da, Matematikako edo Gaztelania, Literatura, Historia edo dena delako azterketan ikusten da gero eta ulermen handiagoa dutela hurrek eta aurrera egiten dutela neurtzen ari garen arlo horretan. Gure tesian Matematikako lorpenak ikusi genituen, haur txikiekin egin genuelako lana. Baina mundu osoan zehar talde elkarreragileak 9.000 eskolatan baino gehiagotan daude, eta arlo akademikoan emaitzak oso agerikoak dira. Talde elkarregileen oinarrian elkarrekintzak daude, eta horiek dira garapenaren eta ikasketa prozesu oren oinarri-oinarria. Alderdi akademikoko aurrerapenak oso agerikoak dira, baina baita alderdi sozialari, hau da, elkarbizitziari dagozkionak ere: oso hunkigarria da elkar nola babesten duten ikustea.

Arlo sozialean, ikasleek asko laguntzen diote elkarri; horri esker, berdinen arteko aurrerapausoak gertatzen dira, elkar animatzen dute, eta bata bestearen ahaleginak errekonozitzen ditu. Horrez gain, taldeetan gertatzen diren interakzio eta laguntasun harreman horiek ez dira gela horretan gelditzen, patioan ere jarraitzen dute. Eurek honela azaltzen dute: “Patioan ikusten badut haur txiki bat, gela elkarreragilean

bezala jokatzen dut harekin, ezin dut gal dadin utzi”. Helduekin daukaten jarrera ere nabarmentzeko moduko ezaugarria da. Ijito komunitatean helduak pisu eta errespetu handia dauka, izebak eta osabak erreferente garrantzitsuak dira, eta pertsona horiek gaixotzen direnean edo zahartzen direnean, haiek zaintzeko ohitura handia dago eta haur ijitoek oso barneratua daukate zeregin hori. Talde elkarreragilea ere horrelako erreferentziekin erlazionatzen dute, bai ikasle txikiagoei begira, eta baita boluntario helduei begira ere.

Artikulu asko daude Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Lehenengo Hezkuntzan talde elkarreragileek dakartzaten onuren inguruan. Hezkuntza Jarduera Arrakastatu bat izateko, talde elkarreragileak diren bezala, transferigarriak direla erakutsi behar da, hau da, testu-guru ezberdinetan funtzionatzen dutela eta emaitza positiboak ematen dituztela egitura horiek. Sansomendi ikastetxean ijitoekin eta migrantee-kin funtzionatzen dute talde elkarreragileek baina, esate baterako, Ingalaterrako goi mailako eskola batean ere talde elkarreragileek emaitza bikainak eman behar dituzte Hezkuntza Jarduera Arrakastatsutaz hartzeko.

### **Heldu boluntarioen lana gakoetako bat da talde elkarreragileetan. Rol inposatzaileak ez dago haurren artean?**

Ez dago rolik. Batzuetan nahastu egiten dira talde elkarreragileak eta talde kooperatiboak, baina ez dira gauza bera. Talde elkarreragileetan ez dago rolik. Ez dira rolik aldatzen, denek daukate hitz egiteko aukera. Ikasketa Dialogikoaren printzipioak daude talde elkarreragileen oinarrian: berdintasuneko elkarrizketa, ezberdintasunen berdintasuna eta elkartasuna, besteak beste. Horrek esan nahi du heldu bolondresen zeregina ikasleen arteko parte-hartzea sustatzea eta denek zerbait esateko aukera dutela bermatzea dela.

### **Harremanetan jartzen duzu fokua, harreman horizontaletan, bertikalen aurrean. Zer zaindu behar du bereziki boluntario horrek ikasleen arteko harreman horiek sendoak eta ahalduntzea dakartenak izan daitezen? Zein dira harreman horien gakoak?**

Magia esan dugu, baina zientzia da benetan. Hezkuntza Jarduera Arrakastatsuek oinarri zientifikoa dutelako funtzionatzen dute. Gakoa umeen arteko elkarrekintzak sustatzea da, helduak —ez irakasleak eta ezta boluntarioak ere—, ez du beti azken hitza izan behar eta ez ditu bai/ez galdera itxiak planteatuko.

Jarrera hori hartzea erronka zaila da irakaslearentzat, nahi gabe beste bide batetik bideratzen baititugu askotan saioak. Ikasleen arteko elkarrekintzak sustatuz eta haiei hitz egiteko espazio gehiago ematearen ondorioz, ikasleak entzunak sentitzen dira eta gero eta gehiago hitz egiten dute eta gero eta gauza interesgarriagoak esaten dituzte.

Espektatibak oso hondoan dauzkagu eta ikasle bakoitzari konfiantzazko mezuak ematea oso garrantzitsua da denbora guztian. Irakurtzen ez dakien ume txiki batek irakurtzeko ahalmena baduela sinistu behar dugu eta hori posible izango da testu baten aurrean jartzen badugu eta irakur dezakeela ikusarazten badiogu. Hau ez da diskurtso kontua: helduok benetan sinesten dugunean gure

interakzioek eta hitzek ikusarazten diote ikasleari konfiantza daukagula beregan.

### **Beste gako oso inportante bat ebidentzia zientifikoa maneiatzeko eta kontrolatzea da, ezta?**

Dudarik gabe. Zorionez gero eta kultura eta tradizio handiagoa dago *open acces*-en artikuluko zientifikoak irakurtzeko. Irakasleek euren arteko tertulioak egiteko gero eta aukera handiagoak daude, gakoak deszifratzeko eta elkarrekin partekatzeko, eta hori oso-oso garrantzitsua da.

Tesian parte hartu zuen ikastetxearen kasuan 2010ean hasi ziren ebidentzia zientifikoari jarraitzen dion korrante honetan lan egiten. Ikas-komunitate bihurtu ziren eta urtero parte hartzen dute ildo horretako kongresu eta konferentzietan. Giroa guztiz aldatzen da. Izan ere, eskolako uste edo aurreiritzi orokorra baldin bada ijitoek ez daukatela hezkuntzarekiko interesik baina, al-diz, artikuluko zientifiko bat irakurtzen baduzu non dioen ijito komunitate batek lorpen handiak erdietsi dituela, eta, ondoren, ildo bereko beste testu bat irakurtzen baduzu, ebidentzia zientifikoak maneiatzeko irakasleak bere buruari egiten dion galdera honako hau izango da da: “Eta gure ikastetxean zergatik ez?”. Aurreiritziak disolbatu egiten dira zientziaren laguntzarekin. Irakasleentzat oso garrantzitsua da artikuluko zientifikoak irakurtzea, ilunpetan nabigatzearen edo itsas-argi baten laguntzarekin nabigatzearen arteko aldea dago. Praktikara eramaten dugun horrek funtzionatzen duela eta bermeak ditugula dakigunean aurrerapauso handiak eman ditzakegu hezkuntzan. Elkarrizketa hau irakurtzen duen irakasle batek bere buruari galdetzen badiu, “Non frogatu da aurrez eskolan egiten dudan honek funtzionatzen duela?” lasai lo egingo dut.

### **Tesia elkarrizketekin ere osatu duzu, behaketez gain. Zer ondorio atera dituzu elkarrizketa horietatik?**

Batez ere irakasle eta zuzendaritza-taldearekin egin ditut elkarrizketak eta familiekin ere bildu naiz. Umee-

“Ikasleen arteko elkarrekintzak sustatuz eta haiei hitz egiteko espazio gehiago ematearen ondorioz, ikasleak entzunak sentitzen dira eta gero eta gehiago hitz egiten dute eta gero eta gauza interesgarriagoak esaten dituzte”

“Ebidentzia zientifikoak maneiatzeko irakasleak bere buruari egiten dion galdera honako hau izango da: “Eta gure ikastetxean zergatik ez?”. Aurreiritziak disolbatu egiten dira zientziaren laguntzarekin”

“Ikas-komunitateak diren eskoletan familien parte-hartzea erdigunean dago eta integrala da, eta haien esperientzia eta haiek zer ikusten duten onuragarri eta zer ez, funtsezkoa da”



kin *focus group* bat egin genuen, non zenbait galdearen harira haien iritziak eta hausnarketak partekatu zituzten.

Behaketa egiten ari nintzen bitartean boluntario gisan sartu nintzen gelan urte osoan zehar, nik ikusten nuena egunero irakasle-taldearekin partekatzen nuen, oso gertu egon bainintzen irakasle-taldetik urte osoan zehar. Hortaz aparte, analizatzen nituen emaitza guztiak irakasle-taldearekin partekatzen nituen. Gizartean eragiten duen zientzia deitzen zaion korrante horren gako bat hori da, jakintzaren elkarsorkuntzaren parte izan nintzen.

Familiekin egindako elkarrizketak oso garrantzitsuak izan ziren. Ikas-komunitateak diren eskoletan

familien parte-hartzea erdigunean dago eta integrala da, eta haien esperientzia eta haiek zer ikusten duten onuragarria eta zer ez funtsezkoa da, baita onura horiek nola identifikatzen dituzten ikustea ere, izan elkarbizitza aldetik edo izan familien arteko harremani dagokienez ere. Elkarrizketei esker ikusi ahal izan genuen zer-nolako harremanak eta klabeak diren garrantzitsu eskola eta familiaren arteko elkarlan efektiboak sustatzeko.

**Familiek parte-hartze handia daukate Sansomendi ikastetxean. Bestelako ikastetxe batean, minoria etnikoa gutxiengoa den kasuetan, begirada berezia eduki behar da familia hauekiko?**

Ekitatearen ideia nagusitu behar da: gehiago eman behar zaio gehiago behar duenari. Ezin dugu errealitatea ez ikusi, eta errealitate guztiak ez dira Sansomendi ikastetxeok bezalakoak.

Beste testuinguru batean, gutxiengo etniko bateko familiak ezberdin tratatzea ez da beti txarrerako izan behar; ikusten baldin bada norbaitek laguntza handiagoa behar duela, dena delako arrazoiagatik, edo ikusten bada gurasoen bileran ez duela parte hartzen lotsa sentitzen duelako, argi dago zerbait gehiago egin behar dugula, hain zuzen ere familia horiekin zerbait gehiago egin behar dugu beste familietako haurren emaitza berdinez lortzeko. Ezberdinen parekidetasuna litzateke hori. Guztiek maila bera lortzea nahi dugu, guztientzat oso altua den maila bat, eta horretarako eskolak behar duen guztia egin behar luke.

**Talde elkarreragileez eta familien parte hartzeaz gainera, zein dira Sansomendi ikastetxeok arrakastaren gako pedagogiko eta estrukturalak?**

Zientziak esaten digu zenbat eta Hezkuntza Jarduera Arrakastatsu gehiago aurrera eramaten badugu eta emaitza hobekien lortzen ditugula. Horrek esan nahi du tertulia dialogikoak egiten baldin baditugu; haurrak talde elkarreragiletan baldin baditugu; gehi familien formakuntzarako espazioak irekitzen baldin baditugu; gehi ebidentzia zientifikoetan oinarritzen den irakasleen arteko formakuntza dialogikoa sustatzen badugu; gehi biblioteka tutorizatuak aurrera eramaten badugu, orduan emaitza oso-oso positiboa izango dela. Ez da jarduera bat ala bestea aukeratzea. Funtzionatzen duten ahalik eta gauza gehien aurrera eramatea da gakoa.

Eskolan arrakasta akademikoa ume guztiengan sustatzea baldin bada helburua, eta familiara ere hori baldin bada, argi dago lana elkarrekin egin behar dela eta urrutirago iritsiko garela.

**lazko konfinamenduak erakutsi zuten ikasleen artean arrakala teknologikoa dagoela, eta hori neurri**

**batean maila sozioekonomikoari lotua dago. Ijito ikasleen kopuru handi bat maila sozio-ekonomiko baxukoa izanik, etnia eta klase soziala gurtzatzen diren puntu honetan, nola gainditu genezake arrakala hori?**

Hori oso galdera ona da eta ikerketak horri heldu behar dio premia. Europa mailan hurrengo 6-7 urteko ikerketa-planen lehentasunetako bat emaitza akademiko urriak dituzten umeen kasuei heltzea izango da, izan ere, haur askok pasa den ikasturtea galdu egin dutela ikusten da, lehen zeudena baino atzerago gelditu direla. Arrakala hori gainditzeko, Europako Gurasoen Elkarteak ondorioztatu du familiekin harreman estua zuten ikastetxeetako ikasleek errazago jarraitu ahal izan dutela euren ibilbide akademikoarekin, Sansomendi edo beste ikas-komunitate diren ikastetxe batzuen kasuan bezala; aldiz, eskolen eta familien arteko harreman gutxi dagoen kasuetan ikasleek arinago deskonektatu dutela.

Konfinamendu garaian ikasle guztiak etxean egon dira, etxeetan familiekin egon dira eta haien rola oso garrantzitsua izan da. Lehendik ere gurasoekin harreman sendoa zeukaten ikastetxeen kasuan ikasle horiek aurrera jarraitu ahal izan dutela ikusi da, batzuetan online ezin bazen telefono bidez jarraipena egin ahal izan delako, eta postaren bidez... Gertaera horrek erakusten du eskolaren eta familiaren arteko erlazioa alde aurretik landu behar dela, bestela oso zaila izango da une kritikoetan erantzutea. Urteekin ikusiko dira horren guztiaren ondorioak. Gauden egoeran egonda funtsezkoa da ikasketa-prozesuak indartzea.

**Zure tesia Haur Hezkuntzako esperientziari buruz egin duzu. Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ikerketa gehiago egin izan dira ikas-komunitateen barruan talde elkarreragileak dakartzaten onuren inguruan. Emaitzak antzekoak dira?**

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako talde elkarreragileen arrakastaren gaineko ebidentzia zientifiko asko daude dagoeneko, nire ekarpena HHko gela

elkar-eragileetako ikerketa egitea izan da. Eta ikusi ahal izan dugu dagoeneko ikerketa zientifikoek esaten duten gauza bera gertatzen dela HHn ere. Interesgarria izango litzateke ikerketa longitudinala proposatzea, HHn, LHn eta Bigarren Hezkuntzan esperientzia hau bizi izan duten umeen ibilbidearen ikerketa egitea, gakoak zehazteko.

**Zure tesiaren ondorioei begira jarrita, ikas-komunitate ez diren eta talde elkarreragileak ez dituzten beste ikastetxeek zer ikas dezakete esperientzia honetatik?**

Hezkuntza Jarduera Arrakastatsuekin topo egiten duten magisteritzako ikasleek edo lanean ari diren irakasleentzako artean sentsazioa honako hau izaten da: “Zer-nolako emaitzak ematen dituen ikusita, halako gauza ederrak gertatzen direla ikusita, eta gainera, elkarbizitza maila halakoa izanda, nola da posible hau ez egitea beste ikastetxe guztietan?”. Nire ustez ideala litzateke ikas-komunitateen planteamendua zabaltzea ikastetxe guztietara. Momentu honetan zientziak dio talde elkarreragileak direla gela barruan umeak taldekatzeko modurik eraginkorrena. Ikastetxeek gisa honetako proiektu bat aurrera eramateko, lehendabizi, irakasleak formatu egin behar dira; irakurri egin behar dute eta ikerketak esku artean izan behar dituzte Gisa honetako proiektuak aurrera eramaten dituzten beste ikastetxe batzuekin harremanetan jartzea ere funtsezkoa da, askotan sinergia asko elikatzen baitira. Baina gauza bat argitu behar da, oso arriskutsua iruditzen zaidalako: zerbait egiten hasi eta talde elkarreragilearen izena jarri eta zentzuz eta esentziaz ez izatea talde elkarreragilea: “Nik eskola elkarreragileak aurrera eramaten ditut nire ikastetxean eta ez du funtzionatzen”.

Hezkuntzaren zentzua berreskuratzen laguntzen dute talde elkarreragileak: umeek nola egiten duten aurrera erakusten dizu; nola laguntzen dioten elkarri, zailtasun handiagoak zituen ikasle horrek nola ateratzen dituen ikasturte amaieran nota onak... zientzian oinarrituriko magia da.

**“Ekitatearen ideia nagusitu behar da: gehiago eman behar zaio gehiago behar duenari. Gutxiengo etniko bateko familiak ezberdin tratatzea ez da beti txarrerako izan behar”**

**“Zientziak esaten digu zenbat eta Hezkuntza Jarduera Arrakastatsu gehiago aurrera eramaten orduan eta emaitza hobekiago lortzen ditugula. Funtzionatzen duten ahalik eta gauza gehien aurrera eramatea da gako”**

**“Nire ustez ideala litzateke ikas-komunitateen planteamendua zabaltzea ikastetxe guztietara. Momentu honetan zientziak dio talde elkarreragileak direla gela barruan umeak taldekatzeko modurik eraginkorrena”**

# ESPERIENTZIAK

PEDAGOGIA FEMINISTA PRAKTIKAN

## Generoaren eraketak dakarrenaz kontzientzia hartzen

Hezkidetzatik hasi eta pedagogia feministarako jauzia egin dute Irungo Toki Alai institutuan DBHko ikasleekin. Lau mailatan zehar hezkidetzarekin lotutako gaiak eta jarduerak curriculumaren barruan lantzeaz gain, horren guztiaren jatorria eta zergatiak arakutzen dituzte, kontziente izateko eta, horrela, gizarte parekideago bat lortzeko bidean urrats gehiago egiteko. Lanketa horrez gain, aurten DBH 4-ko ikasleekin generoa nola eratzen den eta horrek denen bizitzan zer-nolako eragina eta ondorioak dituen aztertutute.

**T**oki Alai BHI ikastetxeko Hezkidetzeta Batzordeak, 2020-2021 ikasturtean, erabaki zuen generoaren eraketa eta horren ondorioak aztertzea DBHko 4. mailako ikasleekin, Eusko Jaurlaritzaren II. Hezkidetzeta Planean jasotako hainbat zutabe landuz: pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean, berdintasunezko hezkuntza afektibo-sexuala, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria-kasuetan esku-hartzea.

Hezkidetzeta Batzordeko arduradunak, Beatriz Rubiok, azaldu du nondik sortu zen gai hori lantzeko beharra: “Hezkidetzeta Batzordeak garatutako beste hainbat ekintzaren balorazioak ikusita, ondorioztatu genuen gure ikasleek generoaren eta sexuaren arteko desberdintasunak ulertzeko premia zutela. Sistema patriarkalak emakumea menpeko sexua bihurtzen duela-eta, horrek emakumezkoengan dituen ondorioak aztertu izan ohi dira (indarkeria, soldata-arrakala, kristalezko sabaia, emakumeen ekarpen historikoak desagertuta



Irungo Toki Alai institutuan irakasgai askotan lantzen dute heziketa eta pedagogia feminista curriculumean sartuz.

egotea, hainbat lan eta balio egozte, amatasuna...); baina, ikasleekin, sistema patriarkal eta hegemonikoaren sustraietara jo nahi izan dugu, eta generoa nola eratzen den aztertu; generoaren eraketa sozialaz jabetu, beste hitz batzuekin esanda”.

Horretarako, lehendabizi, ikasleek beren esperientziak, balioak eta itzaropenak azaldu zituzten; ondoren,

sexuaren arabera konparatu zituzten, eta, azkenik, generoaren definiziora helduta, horrek norberaren bizitzan zer rol jokatzen duen jabetu ziren.

Guztira DBHko 4. mailako 105 ikasleek hartu dute parte lanketan, 41 neskek eta 64 mutilek. “Jarduera has-teko, bi taldetan banatu genituen, mutilak alde batetik eta neskek bestetik. Horretarako, generoaren araberako



taldekatzeak egin ziren, ez sexu biologikoaren arabera, zeren batzuk, nahiz eta sexu biologikoa maskulinoa izan, neska sentitzen dira, edo alderantziz. Guretzat, ezinbestekoa da gure ikasleen aniztasunari erantzuna ematea, eta horregatik da garrantzitsua sexua eta generoa bereiztea eta beti puntu berean ez gaudela jakitea”.

Talde bakoitzari paper zuri handi bat eman zitzaion, eta kide bat etzan zen gainean: haren silueta marraztu zuten gainerakoek. Silueta maskulino eta femenino horien gainean idatzi zituzten irakasleek egindako galderen erantzunak. Hasierako galderak errealitateari lotutakoak ziren, eta ondorengoak, berriz, abstraktuak: zer-nolako marrazki bizidunak ikusten zenituzten txikitana?; zer-nolako jostailuak izan zenituzten?; zer jolasetan aritzen zineten?; zer musika mota entzuten duzue?; zer film eta telesail ikusten dituzue?; zer kirol mota praktikatzen dituzue?; zein zaletasun dituzue?; zein dira zuen erreferentziak?; zer gustatuko litzaizuke ikaslea, edo zertan lan egin nahi duzue?; zerk ematen dizue beldurra?; zuen generoarekin lotutako esaldiak entzun al dituzue edo esan al dizkizute?

### Siluetetan islatutakoa

Sortutako bi siluetak konparatzen hasi aurretik, ikasleei argi azaldu zitzaion ez zegoela epairik, ez zegoela erantzun zuzenik eta erantzun okerrik; helburua berdintasunak eta desberdintasunak zorizkoak diren ala ikasketa sozial baten ondoriozkoak diren aztertzea zela.

Galderen erantzunak siluetetan idatzi ondoren, horiei begiratu eta aztertzeko unea iritsi zen. Asier Pino ikasleak argi dio berehala konturatu zirela silueta biak desberdinak zirela. Rubiok aitortu du deigarria izan zela ikustea mutilen taldeek eta nesken taldeek nola erabili zituzten siluetak. “Irakasleek egindako galderak baldintza zitzaketen ikasleen erantzunak, baina ikasleen ekoizpena guztiz librea izan zen, eta, horretan ere, alde handiak sumatu dira. Neskek letra xehea eta tamaina txikia erabiltzen zuten, eta mutilek, berriz, letra larria eta tamaina handia; hainbat mutilek beren mezuak oso letra handiz idatzi



Ezkerrean silueta femeninoa eta eskuinean silueta maskulinoa. Neskek letra xehea eta tamaina txikia erabili zuten heinean, mutilek letra larria eta tamaina handia erabili zuten, bakoitza bere generoari egokitutako baloreekin lotuz.

zituzten, eta batzuek karratuetan sartzen zituzten, edo azpimarratu egiten zituzten. Nesken produkzioek orekari eusten zioten, eta mutilenak kaotikoagoak ziren. Alde handi hori genero-perspektibatik aztertuta, esan daiteke genero maskulinoari eta genero femeninoari egotzitako ohiko balioekin lot daitezkeela mutilen eta nesken ekoizpen-lanak, eta behaketaren ondorioekin bat datozela: mutilen segurtasuna, indarra eta protagonismoa eta nesken oreka, nabarmendu nahi eza eta ikusezintasuna”.

Ikasleek ikusitako **marrazki bizidunak** gehiago dira komertzialak didaktikoak baino, bai nesken eta bai mutilen artean. Mutilek ikusten dituzten marrazki bizidunetan, protagonistak mutilak dira ia beti (%96); nesken marrazki bizidunetan, protagonista femeninoa herenak du. Protagonista mutilak ausartak, trebeak, abenturazaleak, agintariak, gidariak, indartsuak, kirolariak (futbolariak) eta jakitunak dira, makina-tresnak erabiltzen ondo dakitenak eta asmatzaileak; neskak, oster, mutil protagonisten lagunak edo laguntzaileak dira. “Nahiz eta neskak protagonista bihurtu, nesken irudia oraindik oso markatuta dago, eta feminitate tradizionalari oso lotuta —dio Rubiok—. Esaterako, *Las Supernenas* marrazkietan”.

Generoari dagokionez, neskek nahiago dituzte abenturazkoak

(% 46,6), eta mutilek, berriz, fantasiakoak (% 36,1), abenturazkoak (% 33,3) eta akziozkoak (% 27,7). Nesken artean, fantasiakoak (% 9,9) eta akziozkoak (% 6,6) dira gutxien ikusten direnak; hots, mutilek gehien ikusten dituztenak dira neskek gutxien ikusten dituztenak.

Bai nesken artean eta bai mutilen artean errepikatuta agertzen diren **jolasak** bideo-jokoak eta Playmobilak dira, baina, adi, bideo-jokoak oso desberdinak dira sexuaren arabera: neskek Minecraft, Mario Bros eta Zelda aipatzen dituzte, zeinetan abentura, eraikuntza, irudimena, sormena

**"Ikasleekin sistema patriarkala eta hegemonikoaren sustraietara jo nahi izan dugu eta generoaren eraketa nola burutzen den aztertu nahi izan dugu"**

**Beatriz Rubio  
Hezkidetza Batzordeko  
arduraduna**

## ESPERIENTZIAK: PEDAGOGIA FEMINISTA PRAKTIKAN

eta logika garatzen diren. Mutilek, aitzitik, Fornite, Kratos, Dying Light eta horrelakoak aipatzen dituzte. Horietan, abentura, akzioa, indarkeria, heriotza eta enkanteak dira nagusi.

**Txikitako jostailuak** aztertzean, generoari egokitutako ohiko estereotipoei eusten zaiela konturatu ziren Toki Alaiko ikasleak. “Neskak kutxa erregistratzailearekin, sukaldearekin, ile-apaindegiarekin, puzzleekin eta panpinekin jolasten ginen; mutilak, aldiz, hegazkinekin, autoekin, Skalextric-arekin, Playmobilarekin eta Legorekin. Txikitatik jada, ideia hori sartzen digute”, dio Ariana Delgado ikasleak. Neskak harrapaketa, sokasaltoan eta gomarekin jolasten ziren, eta mutilak, baloiarekin, kani-kekin, kartekin... Mutilen jolasek eta jostailuek kirolarekin eta akzioarekin loturik jarraitzen dute, eta neskenek, berriz, emakume helduen munduaren imitazioarekin, taldeko jolasekin eta gizarte-arauekin.

Horrekin batera, beste gauza batez ere jabetu ziren: neskak mutilen jolas eta jostailuetara hurbiltzen dira, baina ez da gauza bera gertatzen beste noranzkoan. “Neskek baloiarekin jolasten zirela aipatzen dute, baina mutilek ez dute esaten gomarekin jolasten zirenik, esaterako”.

Entzuten duten **musikaren** inguruan galdetuta, musika-generoari dago-kionez, popa nagusitzen da nesketan (aukeratutako abeslari eta musika-taldeen % 48,8): abesti melodikoagoak, maitasuna gai nagusia duten abestiak... Mutilen erdiek nahiago dute rapa: mezu kritikoak eta antisistemak, hitz gogorak, mezu indartsuak... Poparen ezaugarriak bat datoz neskek ikusten dituzten marrazki bizidun eta film motekin: soap opera generoa eta genero erromantikoa. Raparen ezaugarriak, aldiz, bat datoz akziozko pelikula, jolas eta jostailuekin.

Jarraitzen dieten artisten generoa aintzat hartuta, neskek aipatutako abeslari eta musika-taldeen artean bederatzi emakumezkoak dira, hau da, herena gutxi gorabehera; ez da gauza bera gertatzen mutilek esandako musikariek: abeslari eta musika-talde guztiak maskulinoak dira, ez da emakumezkoak agertzen. Zaila da, beraz, mutilen artean emakumez-

ko erreferentziarik topatzea, ikusten dituzten film eta telesailetan agertzen diren emakume ereduetatik at.

“Ikusten dituzten **filmei** eta jarraitzen dituzten **telesail**ei buruz galdetu genien —dio Rubiok—. Eta protagonistaren sexuaren arabera sailkatu genituen haien erantzunak: protagonista femeninoa, maskulinoa, pertsonaia talde bat protagonista, edo bikote bat protagonista”. Mutilek ikusten dituzten film eta telesailen % 72,72tan, protagonista gizona da. Nesken artean, parekotasuna topatuko dugu: neskak, mutilak, bikoteak edo taldeak ageri dira. Mutiletan, txikitako marrazki bizidunen eta musika-abeslari eta taldeen erdua errepikatzen da: mutilak protagonista.

Neskek ikusten dituzten lanetan, genero erromantikoa nagusitzen da (% 38,8); mutilen artean, ostera, akziozkoak (% 35) eta beldurrezkoak (% 20) dira nagusi.

Nesken artean, harreman sozialak, maitasuna eta gizarte-gaiak dira nagusi berriro ere, eta mutilen artean, akzioa, indarkeria eta borroka, bai marrazki bizidunetan, bai jolas eta jostailuetan, eta baita filmetan, telesailetan eta musikan ere.

Erreferentziak aztertu aurretik, **kirol munduari** begirada bat bota zioten Toki Alain, kirolak izugarri baldin-

tzatzen baitie ikasleei pertsonak erreferentziatzen hartzera, batez ere mutilen artean. Ia kirol guztiak errepikatzen dira, baina ez maiztasun berarekin. Adibidez, futbola bai neskek eta bai mutilek aipatzen dute, baina, mutilen kasuan, gehiengo batek aipatzen du, eta nesketan, berriz, gutxiak.

Generoarekiko malgutasun handiagoa nabari da nesketan mutiletan baino: mutilen ohiko kirolak agertzen dira nesken artean ere; ez, ostera, femeninoagotzat jotzen diren kirolak mutilen artean, gimnastika erritmikoa, esaterako. Fenomeno bera gertatzen zen marrazki bizidunekin nahiz jolas eta jostailuekin.

Zer lotura dago kirolaren eta **erreferentziako pertsonen** artean? “Mutilek gehien praktikatzuten kirola futbola denez, futbolariak dira haien erreferentzia nagusiak: Cristiano Ronaldok txapeldunaren kopa irabaziko luke, eta atzetik, gainerako futbol-izarrak letozke. Mutilen erreferentziako pertsonak oso argi daude: gizon kirolariak eta estereotipo zehatz bateko emakume aktoreak —dio Rubiok—. Baina erreferentziako pertsona horiek sinbolizatzen dutena oso desberdina da. Gizon kirolariek indarra, boterea, nagusitasuna eta aberastasuna irudikatzen dituzte;



neskak, ostera, beren gorputzaren araberaren baloratzen dira, haien gorputza eta irudia dira lorpen nagusiak kasu gehienetan”.

Nesken erreferentziako ereduak askotarikoagoak dira, nahiz eta aktoreak eta musikariak nagusitu. Badaude kirolariak ere, baina ez dira denak futbolariak; Klara Olazabal eta Ander Elozegi piraguistak ere aipatzen dituzte, esate baterako. “Gure ikasleen erreferentziak haien mundu sinbolikoaren isla dira, hots, txikitatik ikusitako marrazki bizidunetatik hasita gaur egunera arte jarraitzen dieten musikariak, telesailak eta filmak”, dio Rubiok.

Aipagarria da bai neskek bai mutilak beraien ama aipatzea erreferentzia gisa, gehiagotan nesken artean mutilen artean baino. Mutilak aita ere aipatzen dute; neskek ez.

Ikasleen aisialdiko **zaletasunak** ere aztertu zituzten. Errepikatzen diren zaletasunak marrazketa eta musika entzutea dira, baina marrazketa, nesken kasuan, zaletasun nagusia da, gehien errepikatzen dena; mutiletan, aldiz, bideo-jokoak. Nesken zaletasunek artearekin lotura daukate: marrazketa, idazketa, irakurketa, dantza, musika, eskulangintza, argazkilaritza... Mutilen zaletasunek kirolarekin eta makinekin dute erlazioa: bideo-jokoak, motorrak... Neskek eta mutilak aukeratzen dituzten ikasketen eta lanbideen parekoak dira zaletasunak.

Neskek aurrera begira aukeratutako **ikasketetan** eta **lanbideetan**, esparru humanistikoa (% 44,4) eta zaintzarekin loturikoak (% 25,92) nagusitzen dira: alde batetik, psikologia, psikiatria, politika, historia, turismoa eta enpresa-ikasketak; eta bestetik, erizaintza, pertsona nagusien zainketa, hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonen hezkuntza, albaitaritza, irakaskuntza etab. Aldiz, ez dute presentziarik ikasketak teknologikoak eta kirolaren munduarekin loturikoak. “Neskon artean, oso gutxi daukate teknologia ikasteko gogoia, eta hori da txikitatik sartu digutelako lanbide batzuk gizonentzat direla eta beste batzuk, berriz, emakumeentzat”, dio Patricia Aranburu ikasleak.

Mutilen kasuan, ikasketak teknologikoak (% 34,28) eta kirolen mundua-



Toki Alai institutuko irakasleak maskulinitate eredu anitzak aldarrikatzen azaroaren 12an.

rekin loturikoak (% 25,71) nagusitzen dira etorkizuneko aukeraketan: informatika eta ingeniariaritzak, alde batetik, eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua eta futbolaria edo entrenatzaile pertsonala izatea, bestetik. Ez du lekuri letren esparruak, eta humanitateena ere oso txikia da. Nonbait, kontrajarriak dira interesak: batean nagusitzen diren lanbideak gutxienak dira bestean, eta alderantziz. “Egindako lanketak beldurra kentzeko balio digu; hau da, jabetzeko neskek izateagatik ez ditugula gaizki egingo Matematikako edo Zientzietako gaiak. Neskek garelako gaizki egingo dugun ideia hori kentzea da helburua”, dio Aranburuk. Ikastetxeko Hezkidetzak Batzordeak eta STEAM arduradunek lan estua eta berezia egin dute neskek zientzia eta teknologia mundura hurbiltzeko.

### **Beldurrak ere desberdinak dira**

Gizaki guztiok **beldurrak** ditugu, beldur unibertsalak apika. Baita ikasleek ere. Heriotzari, iluntasunari eta bakardadeari bai neskek bai mutilak diete beldur. Maite dituztenak galtzeak ere kezkatzen ditu. Eta adinarekin lotuta, lehen harremani eta sexualitateari ere beldur diete: lehenengo musuak, hormonek eta maitasunak beldurra ematen diete.

Baina badago nesken eta mutilen beldurretan arrakala bat: genero-indarkeria, hain zuzen ere. Nesken beldurren % 62,5 genero-indarkeriarekin lotuta dago. Batez ere aisialdiarekin eta gauarekin lotzen dute: “norbait nire atzetik joatea”, “etxera bakarrik bueltatzea”, “gauetz bakarrik

ibiltzea”, “gauean ezezagunak gerturatzeta”, bortxatzaileak, bahitua izatea, kaleko jazarpena, komunera bakarrik joatea, taberna baten aurretik bakarrik pasatzea... aipatzen dituzte neskek beldur-iturri gisa.

Mutilen kasuan, ez dira genero-indarkeriarekin loturiko beldurrak agertzen; bai, ostera, mina, istripuak eta heriotza. Baliteke, irakaslearen arabera, “bizi izan duten akzioaren, abenturaren eta protagonismoaren mundu sinbolikoaren ondorio izatea”.

Beraien generoarekin loturiko esaldiak entzun edo jaso al dituzten galdetean, neskek aipatzen dituztenak generoarekin eta indarkeriarekin loturik daude batez ere (% 39,02), eta baita ohiko rol femeninoarekin (% 31,7) edo beren irudiarekin ere (% 29,6). Genero-indarkeriarekin loturikoak gurasoen aldetik jasotzen dituzte, eta “gure onerako” edo “gu zaintzeko” esaten dietela diote neskek: “ez etorri bakarrik”, “heltzen zarenean deitu”, “kontuz kalean”, adibidez.

Mutilak maskulinitate hegemonikotik aldentzen diren heinean, kontrako mezuak jasotzen dituzte gizarte-harremanetan, *marikoia* deitzea, adibidez; ildo beretik, neskek ere ohiko feminitate-estereotipoetatik urruntzean, askotariko izendapenak jasotzen dituzte: sarri *mari-matxo*, *mari-mutila* edo *camionera* deitu zaie, eta “eser zaitez neska bat bezala” eta horrelakoak ere esan izan zaizkie.

Nesken irudiaren eredu txiki-txikitatik jaso dutela erakutsi du egin duten lanak, bai marrazki bizidunetan eta baita ikusi dituzten film eta telesailetan ere. Mutilen emakumezko

## "Kontua ez da aldatzea soilik, baizik eta generoaren eraketaz kontziente izatea eta zer egin dezakegun ikustea"

Asier Pino ikaslea

erreferentziak zein diren ere bada-kite neskek. Hori dela eta, jabetzen dira beraien irudiak gizartean duen garrantziaz. Ahozko mezuak ere jasotzen dituzte, "dena erakusten zoaz" edo "potoloa zaude" esaterako.

### Indarkeria matxistaren zama mutilengan

Indarkeriaren gaiari aipamen berezia egiten dio Rubiok, asko kezkatzen duen puntua delako. "Ezin dugu esan indarkeria matxista ez denik gizonen kontua; sentitzen dut, baina hori ezin dugu esan. Indarkeria matxista gizonen eragiten dute, hori horrela da. Baina, aldi berean, badakigu gizon guztiak ez direla berdinak, eta hori nolabait jakinarazi egin behar zaie. Zeren, bestela, genero maskulinoari dagokion motxila hori denen bizkar gainean geratzen da. Beraz, bide berri bat eraiki behar dugu denon artean, horrelakoak ez diren mutilei zama hori kentzeko. Nire kezka hauxe da: nola egin hori hezkidetzatik, feminismitik, mutilak errudun senti ez daitezen, eraso egiten zaiela senti ez dezaten. Egia da haien generoak sortzen duela indarkeria hori, baina nola egin horri buelta emateko eta denon artean eraikitzeko? Horretan asmatu behar dugu". Bideetako bat maskulinitate-eredu gehiago sortzea izan daiteke. "Gure ikasle asko ez ditut indarkeria erabiltzen ikusten. Haiek ere balio hegemonikoen zama daukate, eta horietatik aldutzen diren mutilek ere oso gaizki pasatzen dute: burlak, jazarpena, bazterketa, autoes-

timu-arazoak... Horrexegatik behar ditugu maskulinitate-eredu gehiago". "Nik, mutila naizen aldetik, badakit indarkeria hori jasaten dutela neskek —dio Pino ikasleak—. Eta laguntzeko moduak badaude; esate baterako, lau mutil banku batean eserita baldin badaude, oso desberdina da neska bat pasatzen denean hizketan jarraitzea edo denak neskari begira jartzea. Garrantzitsua da neskak beldurra senti dezakeela konturatzea, eta hori saihestu behar dugu".

### Ikasleen hitzetatik ondorioztatutakoak

Ikasleen iritziak jakinda, Toki Alaiko hezitzaileak dio beraien hipotesiak baieztatu egin zirela:

- "Genero maskulinoa genero femeninoa baino markatua dago gure ikasleen artean, zurrungoak dira estereotipoak: neskek praktikatzen dituzte mutilen kirolak eta jolasak, ikusten dituzte mutilen filmak eta entzuten dute haien musika; baina, aitzitik, mutilek ez dituzte tradizionalki neskenak izandako musika, filmak, jolasak eta jostailuak erabiltzen. Mutilen genero-eskema mentalak hertsia goak dira neskenak baino".
- "Txikitako marrazki bizidunek, jolasek, jostailuek, zaletasunek eta kirolek baldintzatu egiten dituzte gaztetako musika, filmak eta interesak, eta horrek eragin zuzena du ikasleek aukeratzen dituzten ikasketa eta lanbideetan. Horrela, generoen mendekotasun-harremanak iraun egiten du, eta sustraitu egiten da: soldata-arrakala, kristalezko sabaia, etab".
- "Landu diren aldagai guztiak luzera begira aztertuta, antze-man daiteke generoen arabera, txiki-txikitatik helduak izan arte, bi bide banandu egin dituztela neskek eta mutilek. Bi bide horiek dira, hain zuzen ere, generoaren markak, eta bi bide horiei zehatz-mehatz jarraitzeak dakar generoaren indar sinbolikoa (eta baita fisikoa ere) pairatzea".

- "Genero-indarkeria oraindik emakumeen kontua da, mutilek ez dute indarkeria beren larruan pairatzen".

### Ereduen aniztasunak ekarriko du aldaketa

Ikasleek datu horien inguruan hausnartzeko eta eztabaidatzeko aukera izan dute. Askok ez dituzte gaizki hartu nesken eta mutilen artean ageri diren desberdintasunak, "desberdinak garelako". Rubio hezitzailearen ustez, "gehienek gizarteratzean ikasitako genero-rolak identifikatu dituzte, eta batzuk gai izan dira generoaren eraketa gizonen eta emakumeen artean dauden mendekotasun-harremanen iturri dela ikusteko. Generoak gure bizitzetan duen eragina aztertzea, baloratzea eta onartzea pauso zaila da oraindik ere gehientzat, baina urrats bat egin dugu". Patriarkatu koaktibotik adostasunaren patriarkatura igaro garela dio Hezkidetzako Batzordeko arduradunak: "Gure identitateak kanpotik eraikiak dira maila handi batean. Gure hautatzeko gaitasuna baldintzatu dago, nahiz eta gizarte aske, demokratiko eta berdinzale baten parte sentitzen garen. Garrantzitsua da ikasleek errealitate hori ezagutzea".

Maria Lete ikaslearen iritziz, "ohar-kabea pasatzen diren gauza txiki askotaz jabetu gara; esate baterako, jostailuek zer-nolako eragina izan duten gudan. Horrelako nabardura askotaz konturatzeke balio izan digu dinamika honek". Patricia Aranburuk erantsi du ari direla gauzak aldatzen. "Guraso izaten garenean, agian ez ditugu orain arteko ideia horiek hain barneratu edukiko, konturatzen ari garelako eta hori guztia aldatu nahi dugulako". Pinok gaineratu du kontua ez dela aldatzea soilik, "baizik kontziente izatea eta zer egin dezakegun ikustea. Aldatzea baino gehiago, kontzientzia hartzea eta aukera bat baino gehiago daudela onartzea eta errespetatzea da". Rubio irakasleak dio, behin desberdintasun kontzientzia izanda, hurrengo pausoa ereduen zurruntasunetik libratzea dela: "Gero eta eredu femenino eta maskulino askotarikoagoak ikusten dituzte, eta horiek errespetatu, baloratu eta onartzea da helburua".

## “Gai hau lantzeko, errora joan behar da, eta erroa curriculuma da”

Hezkidetzarekin lotutako jarduera guztiak curriculumean sartzen dituzte Toki Alai institutuan, eta Beatriz Rubio Hezkidetzako Batzordeko arduradunak garbi dauka horrek izan behar duela bidea: "Gai hau lantzeko, errora joan behar da, eta erroa curriculuma da. Argi eta garbi". Hezkidetzako curriculumean txertatzea eta hezkidetzatik pedagogia feministara salto egitea zen Rubioren helburua, eta horretan dihardute berak eta gainerako irakasleek zuzendaritzaren laguntzarekin. "Une jakin batzuetan gauza ikusgarriak egiteak erresistentzia handiagoa sortzen du mutilengan, eta hobe da poliki-poliki diziplinarteko moduan egitea, baina beti curriculumetik. Puntuala dena berezia da; orduan, egokiagoa da normaltasunez barneratzen joatea".

Lan egiteko modu horren bitartez pedagogia feminista lantzen dela dio Rubiok, hezkidetzatik harago joanez. "Gauza bat da, hezkidetzaren ikuspegitik, emakumeak eta gizonak eskubide berdinak ditugula jakitea, boto eskubidea, esaterako, baina inportantea da industrializazio garaian egon zen mugimendu feminista garrantzitsua ezagutzea eta jakitea emakumeek botoa emateko eskubidea lortu zutela. Halere ez diegu inoiz azaldu noiztik eta nola lortu zuten. Zergatik ez diegu azaldu? Ez da nahikoa gizonak eta emakumeak berdinak garela jakitea; hori hezkidetzako da; horrez gain, garrantzitsua da hori nondik datorren jakitea, edo jabetzea zergatik ezagutzen dugun Machado eta ez *Las Sinsombrero*. *Las Sinsombrero* ezagutaraztea da pedagogia feminista niretzat".

### Curriculumean txertatuta, DBHko lau mailetan egiten dituzte jarduerak:

- 1. mailan, sentsibilizazio eta bisualizazio prozesua hasten dute: zer da genero-indarkeria, zer da sexismoa, zer da indarkeria matxista... Orratzak egiten hasten dira, leloak asmatzen, pegatinak eta collageak egiten...
- 2. mailan, genero-indarkeriaren eskailera ezagutu, genero-indarkeriaren pausoak identifikatu eta maitasun erromantikoaren desmitifikazioa lantzen dute. "Gizon batek edo bikoteak zaplazteko bat jotzea, bortxatzea, zerbait egitera behartzea... hori denok dakigu indarkeria dela; onartu ala ez, jakin badakigu indarkeria dela. Baina gutxiago ikusten den indarkeria ere badago: mugikorraren kontrola, lagunaren kontrola, janzkeraren edo itxuraren kontrola... eta Bigarren Hezkuntzan indarkeria hori identifikatzen ikastea oso garrantzitsua da. Lehenengo zaplaztekoa jaso baino lehen, normalean, aurretik beste guztia sufritzen delako. Horregatik, aurreko hori dena, *kontrola* deitzen dioten hori ere indarkeria dela jakitea garrantzitsua da".
- 3. mailan, hausnarketa eta esku-hartze prozesua egiten da. "Indarkeriaren aurrean, biktima edo erasotzailea izateaz gain, ondokoak ere izan gaitezke, eta zer egin daitekeen ikusten saiatzen gara". Horrekin batera, batzuk lehen harremanak izaten hasten dira, eta, kasu horietan, bakoitzak zer nahi duen jakitean eta besteei jakinaraztean jartzen dute fokua.
- 4. mailan, jatorria eta arrazoiak ikusten dituzte. Nondik dator hau guztia? Indarkeria hau dena nondik dator? Zein da jatorria? Tertulia dialogikoetan, *androzentrismoa*, *patriarkatua* eta horrelako kontzeptuak lantzen hasten dira.

Urtetik urtera, gehiago sakontzen joaten dira, beti curriculumaren barruan lantzen saiatuz. Horretarako, funtsezkoak dira Hezkidetzako arduradunaren eta gainerako mintegietako irakasleen koordinazioa eta lankidetzak. Hona hemen **egiten dituzten lanketen hainbat adibide:**

- Historian, 4. mailan: feminismoaren olatuak lantzen dituzte Frantziako Iraultza eta Industria Iraultza ikusten dituztenean. Frantziako Iraultzarekin lotuta, sufragioa, eta Industria Iraultzarekin lotuta, emakumeen sufragioa eta feminismoaren bigarren olatua.
- Gaztelanian: irakurgai diren liburuen zerrendan ez dagoen *Las Sinsombrero* liburuaren irakurketa txertatu dute.
- Fisika eta Kimikan: emakume zientzialariak txertatu dituzte.
- Informatikan: ikasleen artean banatzeko galdetegi bat egin dute gai hauen inguruan: emakumearen egoera lan-merkatuan eta lan-banaketa familian. Galdetegia egin bitartean, formulario bat egiteko zer baldintza bete behar diren, Google formulario bat nola sortu behar den eta abar ikasi dute.
- Matematikan: datu horiek denak estatistika lantzeko erabili dituzte 3. mailan, eta, bide batez, zer den maiztasun absolutua ikasi dute, zer den maiztasun erlatiboa, batezbestekoa, motak, grafikoak... Datu horiek Gazte Behatokitikiko datuekin konparatu dituzte, eta, horrela, beraien eta Euskal Herriko gazteen iritziak eta pertzepzioa konparatu dituzte.
- Euskarari: publizitatearen gaiari, publizitate sexista landu dute: indarkeria sinbolikoa, gorputzak, emakumearen objektualizazioa... Irakurketa liburuaren artean honako hauek sartu dituzte: Alaine Agirrearen *Maren* eta Libe eta Kattalin Minerren *Moio*.
- Ingelesean: homosexualen inguruko *Tom Boy* eta *Love, Simon* pelikulak ikusi dituzte.

# EKARPENAK 1

EMOZIOAK LANTZEN HAUR HEZKUNTZAN

## Artea tresna, emozioak langai

Lan hau ikasgelaren hezkuntza-testuinguruan hezkuntza emozionala barneratzeko beharra ikusita sortu da, eta, batez ere, hura hobetzen lagunduko duten forma eta baliabide metodologiko berriak biltzearen ondorioz. Proposamenaren zati garrantzitsuak dira emozioen azterketa eta hezkuntza emozionala, eta arte-sorkuntzen ardatz nagusiaren inguruan daude biak. Haurren nortasunaren garapena eta heldutasuna bultzatzeko, eremu emozionalak garrantzi handiagoa izatea proposatzen du egileak. Adierazpen sortzaileak hezkuntza-ekintza bultzatzen duen prozesu gisa dituen aukerak esperimentatzea izan da egilearen erronketako bat, artean emozioak hezteko hezte.



### Eukene GOIKOETXEA Gizarte Hezkuntzan graduatu

**A**riketa bat proposatzen diogu irakurleari: hitzekin ez ezik jarrerekin ere bakea kutsatzen eta konfiantza sortzen duten pertsonengan pentsatzea; inolako indarkeria motarik justifikatzen ez duten pertsonengan, lasaitasuna gordetzen dakitenengan eta erraz aldatzen ez direnengan, ideologiaren esklaboak ez direnengan, besteak epaitzen jarduten ez dutenengan, berotasuna eta harrera-gaitasuna ateratzen dituztenengan, huts egiten dutela dakitenengan.  
*Batzuek pentsa dezakete ez dagoela*

*halakorik; beste batzuek denbora pasatuko dute bilatzen; beste batzuek, agian, zerbait aurkituko duzue... Horrelako talentua duten pertsonak dira, inolako zalantzarik gabe, gure kulturak aspaldidanik sortzen dituen gauzen zerrenda luze batetik urruntzen jakin dutenak". (Bach eta Darder, 2004, 21.-22. or.)*

Haur Hezkuntzako etapan emozioek duten protagonismoak, horiek heziak izan daitezkeen eta izan behar duten uste sendoak eta horretan parte hartzeko arteari ematen diogun gaitasunak bultzatu ninduten "Artearen bidetik hezkuntza emozionalera" proposamena sortzera.

Gorputzak, gogoak eta emozioek osatzen dute gure pertsona, eta funtsezkoa iruditzen zait hiru elementuek hezkuntzan esku hartzea, erabat garatzen laguntzeko. Eskolak orain dela gutxi arte ez du planteatu pertsonen hezkuntza integralaren lanketa, bere izateko arrazoia hezte izan baita. Hala ere, azken urteotan ikusi da edukiak ikastea ez dela nahikoa pertsonak prestatzeko, eta arrazoiak ez duela, berak bakarrik, zorientsu izatea bermatzen, ez eta maila pertsonalean, profesionalean edo sozialean arrakasta handiagoa izatea ere. Dimentsio emozionalari erreparatzeak aukera ematen digu pertsonen hezkuntza integralean lagunduko duten tresna eta baliabide gehiago izateko. Hori dela eta, uste dut funtsezkoa dela emozioak hezkuntzan modu formal zein informalean sartzea eta

haurrei emozioez jabetzen, horiek erregulatzen, besteekin harremanak izaten eta autoestimua onatzen erakustea. Hezkuntza emozionalak garapen integrala lortu nahi du, bai alderdi kognitiboaren aldetik, bai alderdi emozionalaren aldetik, eta uste dut artea oso baliagarria izan daitekeela pertsonaren prestakuntza global horretarako, zeren eta, adierazpen artistikoetan, emozioek funtsezko zeregina baitute. *Curriculum vitae*an hain gutxietsita dauden eta emozioak ikasi eta ulertzeko horren baliotsuak diren gai artistikoak sustatu nahi ditut, emozioak ezagutzea errazten dutelako eta, aldi berean, modu kontrolatuan pertsona askatzen laguntzen dutelako.

Daniel Golemanek (1995) honela definitu zuen adimen emozionala: gure sentimenduak eta besteenak ezagutzeko, nork bere burua motibatzeko eta gure emozioak, batez ere giza harremanekin zerikusia dutenak, modu positiboan kudeatzeko gaitasuna. Haren aburuz, adimen emozionala munduarekin elkarreragitan aritzeko modu bat da, sentimenduak oso kontuan hartu eta zenbait trebetasun biltzen dituen, hala nola bulkaden kontrola, autokontzientzia, motibazioa, pertseberantzia, enpatia, buru-bizkortasuna, etab. Trebetasun horiek nahitaezkoak dira gizarte-egokitzapen on eta sortzailerako, autodiziplinarako, gupidarako edo altruismorako, esaterako.

### Hezkuntza emozionala

*Hezkuntza emozionalak esan nahi du hezkuntza afektibotik afektuaren hezkuntzara pasatzea. Orain arte uste izan da hezkuntzaren dimentsio afektiboa edo "hezkuntza afektiboa" zela hezkuntza-prozesuan afektua jarri, heztea. Orain, afektua heztea da kontua, hau da, emozioei buruzko ezagutza teoriko eta praktikoa ematea.* (Rafael Bisquerra, 2001, 8. or.)

Hezkuntza emozionalaren helburua da pertsonen hazkunde pertsonala eta soziala, heldutasuna eta ongizatea; hau da, nortasunaren garapen integrala, barnean hartuta adimen emozionala garatzea eta bizitzako hainbat egoeratan aplikatzea. Nabaria da emozioen eta ongizatearen arteko



lotura; ongizatea hautematen dugun gertaera positiboak izaten ditugun heinean. Alde horretatik, Jose Antonio Marinak (2010) hau dio: "Zoriontasuna da bi giza motibazio handi harmoniatuak egitea: ongizatea eta aukerak handitzea". Gaitasun emozionalaren garapenak heziketa emozionala ekarriko du.

*Emozio-hezkuntzaren helburua gaitasun emozionalak garatzea da. Gaitasun emozionalak fenomeno emozionalak behar bezala ulertu, adierazi eta erregulatzeko beharrezkoak diren ezagutza, gaitasun, trebetasun eta jarreraren multzo gisa ulertzen ditugu. Gaitasun emozionalen artean daude kontzientzia eta erregulazio emozionala, autonomia emozionala, gaitasun sozialak eta bizitzarako zein ongizaterako trebetasunak.* (Bisque-rra, 2011, 11. or.)

### Emozioak

Ez da lan erraza emozioak definitzea. Emozioa gorputz-egoeraren aldaketa bat da, behatu eta neur daitezkeen aldagai fisiologikoen ezaugarritzat dutena; kanpoko edo barruko estimuluei ematen zaien erantzun fisiologikoa da, eta berez eta nahi gabe gertatzen da. Sentimenduak, aldiz, emozioetatik datozen buru-lana dira; ez dira berezkoak, ikasi egiten dira, eta emoziotik abiatuta sortzen dira. Ezkutuan egon daitezke besteen aurrean, eta emozioak baino iraunko-

**Hezkuntza estrategia gisa, bi dimentsio izan ditzakete haurrek prozesu artistikoan: batetik, sortzaile gisa, adierazpen sortzaileak emozio negatiboak aurre egiten eta alaitasunera, zorionera edo maitasunera hurbiltzen lagun diezaieke, eta, bestetik, ikusle aktibo gisa duten rolean, emozioak hauteman ditzakete, eta besteen lekuan jartzen ikas dezakete, artistak bere lanarekin zer sentimendu eta emozio transmititzen dituen interpretatuz.**

## EKARPENAK: EMOZIOAK LANTZEN HAUR HEZKUNTZAN

rragoak eta luzeagoak izaten dira.

Bisquerrak (2000) honela definitzen ditu emozioak: “Organismoaren egoera konplexua, kitzikapen edo asaldura batek ezaugarritzen duena eta erantzun antolatua izateko joera duena. Emozioak kanpoko edo barruko gertaera bati erantzuteko sortu ohi dira”. (61. or.)

### Artea

Nire proposamenen egin nahi izan nituen ekarpena eta berrikuntza, arte-tik eta haren hizkuntzetatik abiatuta egin nahi izan nituen, edozein adierazpenen bidez emozioen eremura irits gaitezkeelako. Hori guztia, artea hezkuntza emozionalerako estrategia erabilgarritzat jota.

Artea hezitzailea, eraikitzailea eta didaktikoa da; adierazpena, kritika, erreibindikazioa, edertasuna, sormena, hezkuntza, balioak eta emozioak dira. Beraz, artearen hezkuntzak emozioen hezkuntzari heltzeko aukera eman behar digu. Sortzen duenaren eta jasotzen duenaren erarazten dituen emozioak balora ditzakegu.

Bisquerrak (2011) hau dio: “Esan daiteke adimen emozionalari, ongizateari, emozio positiboari, psikologia positiboari eta neurozientziari buruzko ikerketak direla hezkuntza emozionalaren oinarri den nukleo teorikoa. Emozio estetikoak ere garrantzitsuak dira”. (18. or.)

Adierazpen plastikoak eta sormen-prozesua adierazpen eta garapen emozional eta pertsonalerako bide bihurtu daitezke.

### Zertarako balia ditzakegu hezkuntza emozionala eta artea?

Azterketa hau eragin zuen tesiak bi aldagai lotzen zituen, eta horiek artikulatzen zuten ikerketa osoa: hezkuntza emozionala eta artea, hezkuntza integralaren testuinguruan. Hasiera-hasieratik, artea eta arte-adierazpenak esparru pribilegiatutzat hartu ziren Haur Hezkuntzako ikasleentzako hezkuntza emozionalerako.

Sortutako unitate didaktikoetan, haurren heldutasuna, ongizatea eta nortasunaren garapena sustatuko dituen hezkuntza emozional bat proposatzen da, emozioak garapen

horren funtsa direla ulertuz; esparru teorikoan egiaztatu den bezala, hainbat diziplinako autoreek diote emozioak besteekin elkarreaginean aritzeko eta norberarekiko harremanetarako oinarriak direla.

Lehen ere aipatu den bezala, pertsonaren garapenak ez ditu bere oinarriak arrazoian, baizik eta emozioan, besteekiko eta norberarekiko harremanetan, adierazpenean eta afektibitatean.

Haur Hezkuntzako haurrentzat oso garrantzitsuak diren hiru eduki multzotan jartzen da arreta: kontzientzia emozionala, autoestimua eta trebetasun sozioemozionalak. Nire planteamendu metodologikoa egiteko garaian, ezinbestekotzat jo nuen printzipio psikopedagogiko konstruktibistetan eta ikuspegi sistematikoan oinarritzea, baldin eta pertsonen garapen integrala bilatzen bada eta izateko eta elkarrekin bizitzeko gai izan daitezen hezten badira haurrak, eta ez soilik eduki kontzeptualak lortzeko. Proposamenaren bitartez, sortzeko eta gozatzeko aukera eman nahi diet haurrei ikuspuntu holistikotik, era globalean hautematen, sentsazioen bidez esperimendatzen eta modu sortzailean bizitzen diren hizkuntza artistikoen bitartez.

Jardueren hedapenean, kontuan hartzen dira 5-6 urteko haurren ezaugarri psikoebolutiboak eta horien beharrak.

Askotariko eta iraupen laburreko irudikapen- eta ikaskuntza-estrategiak erabiltzen dira, saio bakoitzaren barruan espazio batetik bestera pasatuz. Haurrari esperimendatzeko eta prestatzeko prozesuan lagundu nahi zaio, adierazpen libre eta irekitik pertzepziora, komunikaziora eta integraziora irits dadin, hainbat hizkuntzaren laguntzarekin.

Proposamena bost unitate didaktikotan banatzen da, eta unitate bakoitza lau saiok osatzen dute. Saio bakoitzari entzumenarekin ematen zaio sarrera, landuko den emozioa kokatzeko, eta, gainerako ekintzak egin ondoren, erlaxazioa eta itxiera egiten dira. Saio bakoitzerako egokienak iruditu zaizkidan ekintzak proposatzen dira; gorputz-adierazpena, pintura-lanen aurkezpena, adierazpen plastikoa, ipuinen narra-

zioa, idatzizko adierazpena eta abar aurkitu ditzakegu, saioetan landuko denari egokituta.

Eduki komun batzuk definitu nituen jarduera guztietarako:

- Aktiboki parte hartzea musika piezen entzumenean.
- Mintzamen-, gorputz- eta plastika-adierazpenean inplikatzeko.
- Pintura-lanei behatzea.
- Sentitu den emozioa pixkanaka integratzea.
- Taldeari lotuta egoteko eta taldeko kide izateko sentimendua.
- Besteekin egoteaz eta egoera partekatzeaz gozatzea.
- Ahozko eta hitzez besteko komunikazio-trebetasunak: entzutea, begirada, irribarreak, probokazioa eta konplizitatea.
- Ipuinekiko jakin-mina, interesa, arreta eta entzute aktiboa.
- Ipuinetako pertsonaien ezaugarri pertsonalak identifikatzea.
- Emozioen hiztegia erabiltzea emozioak identifikatzeko eta sentitzen ari denari izena ematen jakiteko.
- Erlaxazioa.

Lanaren emaitzak positiboak izan ziren, uste baitut ezarritako helburua lortu zela: emozioak adierazteko espazio bat eskaintzea, hezkuntza emozionalean proposatu ohi direnak bezalakoa. Hainbat adierazpen artistikoren bidez emozioak adierazteko esperientzia izan zen, eta, artearen bidez, beste eduki batzuk landu ziren, hala nola enpatia, tolerantzia, taldekohera, autoestimua, lankidetzaren komunikazioa edo aniztasunarekiko errespetua.

Nahiz eta uste dudana eskola eta gela leku aproposak direla eduki emozionalak lantzeko eta artea tresna pribilegiatua dela eduki horiei heltzeko, erantsi behar dut, amaitzeko, ezinbestekoa dela eduki horiek bizitzeko beste eremu batzuetara ere zabaltzea.

Marinaren hitzetan (2010): “Gure haurrak ondo hezi nahi baditugu, hau da, zorionerako eta duintasunerako hezi nahi baldin baditugu, ezinbestekoa da gizarte zibilaren mobilizazio hezigarria, Afrikako atso-tz zaharren espiritua berreskuratuko duena: *Haur bat hezteko tribu osoa behar da*”. (8. or.)

## Etengabeko prestakuntza

### 0-6 etapako aditu-titulua

- Zaintzaren garrantzia (Pikler)
- Pedagogia eraldatzaileak

Bi ikasturteak edota bakarra egiteko aukera dago zabalik.


Hiru titulazioa eskaintzen dira.

- 0-6 etapako aditu titulua, zaintzako eta pedagogia eraldatzaileetako espezialitateetan ( 2 ikasturte)
- 0-6ko aditu titulua, zaintzako espezialitatean
- 0-6ko aditu titulua, pedagogia eraldatzaileetako espezialitatean



## 2021-2022 ikasturte osorako Hik Hasiren formazioa

- **Psikomotrizitate erlazionala**  
Mapi Urresti



- **Jirafaren hizkuntza**

Komunikazio Ez Bortitza  
Nerea Mendizabal

9 saio online



[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)

# EKARPENAK 2

HIK HASIREN 0-6 FORMAZIOA

## “Haurraren ikuspegia osatzeko ez ezik, asko balio izan dit pertsonalki hazteko”

Zazpigarren promozioak maiatzaren 22an amaitu du formazioa. Haurrarekiko begirada aberasteaz gain, norbere buruarekiko konfiantza lantzeko balio izan die formazioko ikasleei. Jorratutako teorien eta emileen mailaz gain, egiteko modua, hitzak bizipen bihurtzea eta norbere azaletik goxotasunez ikasi izana nabarmen dute, “juiziorik gabeko espazio batean”.

**P**andemiak guztiz baldintzatu ditu iazko ikasturtea eta aurtengoa, baina **Hik Hasiren** formazioak ere. Etxetik eta online jarraitu behar izan zituzten martxotik ekaina bitarteko saioak iazko bi promozioek, aurten aldiz, zailtasunak zailtasun ikasleen ahalegin eskergari eta Usurbilgo Udalari eta Udarregi ikastolari esker —han egin dira aurten **Hik Hasiren** aurrez aurreko ikasturte osoko formazioak— modu presentzian egin ahal izan dira bai 0-6 formazioa eta baita psikomotrizitate erlazionala ere. Iragan maiatzaren 22an amaitu zuen 7. promozioak 0-6 formazioko ikasturtea, eta hazita, helduta, asebeteta, hunkituta, pozik eta penaz bukatu dute formazioa hezitzaileek.

Haurrarekiko ikuspegia osatu eta aberasteaz gain, norbere buruaren ezagutza sendotzeko balio izan die hezitzaileei bi urteko formazioak. “Formazioko lehenengo saioan Xabier Tapiak haurra subjektu gisa hartzen duen ikuspegia jarri zuen mahai gainean, hortik abiatuta, gero bai Pikler ildoak, eta ondoren pedagogia berritzaileak, pedagogia sistemikoa edota Alfredo Hoyuelosek hazkuntza prozesua artearekin lotzea ikagarria izan da, *increscendo* bat izan da formazio osoa”. Mari Seararen hi-

tzak dira, Haur Hezkuntzako irakaslea da eta “ukituta” mintzo da formazioa bukatu berrian. “Haurraren ikuspegia osatzeko ez ezik, niri asko balio izan dit pertsonalki hazteko, ikaskideen artean eta **Hik Hasikideen** artean hazi egin gara, gure oinarriak astindu ditu formazioak eta sendotu egin gaitu”.

Asier Zubia Ozaeta-Barrundiako eskola txikiko hezitzaileak ere bi ardatz horietan ikusi du formazioaren eragina: haurrarekiko begiradan eta norbere buruarekikoan: “Haurraren gaitasunetikiko konfiantza eta errespetua asko landu eta bizi izan ditugu, haurra gaitasunez eta konpetentziaz betetako izaki bat dela barneratu dugu. Lehendik banekartzan ideia askotan neure burua baieztatzeraz eraman nau formazioak, baina orain ideia horiek formulatzeko moduari ere gehiago begiratzen diot eta, umearekiko konfiantzan oinarritutako begirada bat ez ezik, hezitzaileok geure buruarekiko eta geure gaitasunetikiko ere errespetua eta konfiantza eduki behar ditugula ikusi dut”.

Donetz Iradi Tolosako Osasun zentroko pediatria zerbitzuko erizaina da eta hezitzaileekin batera egin du bi urteko formazioa. “Aberastu egin naiz formazioan, dudarik gabe eta asko aldatu zait haurrarekiko ikuspe-

gia: haurraren gaitasunetan oinarritua dagoen begirada eman dit formazioak; haurraren autonomia garatzeko bidean *nolako* asko ikasi ditut: loari, janari, pardelari eta, oro har, zaintza den horri buruzko itsasargiak jaso ditut, lehen ere banituen batzuk, baina orain zabaldu egin zaizkit, eta asko eskertu ditut. Egoteko moduez ere asko hausnartu dugu, egote enpatikoa, entzutekoa, juiziorik gabekoa, errespetuzkoa... haurrari begirako itsasargi asko eman dizkit formazioak”. Halaber, heldu eta profesional bezala, sakontzeko gidalekorrak jaso ditu: “Batez ere, neure baitan galdera hau ez itzaltzeko gakoa eman dit formazioak: zer hobetu dezaket? Harritzeko gaitasuna eskaini dit. Gure baitan dagoen inozentzia horrekin konektatzeko aukera eman dit”.

Alvaro Beñaranekin bi ikasturtetan egin duten formazio pertsonala gakoa izan da haurrarekin ez ezik norbere buruarekin konektatzeko, entzun ez ezik bizi egin dute bi urteotan zehar konexio hori. “Itsasargi horiek ikasteaz gain bizi egin ditut, bereziki bizi egin ditut —azaldu du Iradik—. Ez da teoria bakarrik, sentitu egin dugu geure baitan, eta bizipenari esker askoz ere gertuago senti zaitezke esandako horretatik”. Edukia eta forma bat datoz

guztiz 0-6ko formazioan, teoriak ez dira hitz hutsalak, bizipenak baizik, eta horren adibide gisa Emmi Piklerren praktika eta zientzia jarri ditu Zubiak: “Piklerren jakintza — munduarekiko eta umearekiko bere ikuspegia, maitasunez, konfiantzaz eta begirunez betea — eta zientzia eraikitzeko bere modua oso interesgarria iruditzen zait, bizitzarekiko errespetuz eta maitasunarekin egina iruditzen zaidalako. Hau da: zientzia egin zuen baina zaintzeari utzi gabe, bizitzarekiko ardura batekin beti”. Hitzei eta teoriari ez ezik, egiteko erari eta praktikari garrantzi handia ematen die Zubiak. Haur Hezkuntzan ezinbesteko gako gisa ikusten du errespetuz eta maitasunez aritzean, eta hori eskertzen du formaziotik: “Ikasi, jakin eta egiteko era hau Haur Hezkuntzarako ez ezik denontzako ona dela uste dut, baina gure artean, oraindik, uste dut ez daukala merezi duen tokirik. Apurka-apurka, egiteko modu hau bidea egiten ari dela uste dut, eta **Hik Hasiri** esker, besteak beste, etorkizuneko hezkuntzari ilusioz eta itxaropenez begiratzeko aukera ematen duten adierazleetako bat iruditzen zait”.

### Egitetik, egote aktibora

Ikasitakoa praktikara eramate horretan, egitetik egotera urratsa egin du, dagoeneko, Searak: “Entzute aktiboa zein garrantzitsua den ikusi eta bizi izan dut formazioan. HHko irakasleok, programazioan eta proposamenetan murgiltzen gara, eta guk pentsatutako horiek haurrak nola gauzatuko lituzkeen irudikatzen dugu. Formazioak eskaini didan ikaskuntza handienetako bat haurrekin egon eta entzutearen balioa zer-nolakoa den izan da. Horrek demaseko energia eskatzen du, ume guztiek daukate esateko zerbait eta guk euren mundua jaso eta itzuli egin behar diegu. Egotean eta entzute aktiboan inbertitzen dut orain, lehen programazioetan eskaintzen genuen denbora”.

Asier Zubiak ere egitetik egoterako aldaketa horretan ikusten du funts garrantzitsu bat: “Gu lehen *egin, egin eta egin* ginen eta orain egotera pasa gara. Nire lan egiteko eta kokatzeko eran aldaketa eragin du formazioak. Garapen bat ikusten dut: eskolan arazo bat edo gai bat landu behar dugunean nire barrura begiratzen saiatzen naiz,



gai zehatz horrek nire barnean zer oihartzun daukan entzuten saiatzen naiz eta oihartzun horiek landuz eta jarraituz, nire barnean aurkitzen ditut erantzunak”.

Ikasitakoa praktikara eramaten hasiatatik, prozesu gisa ikusten du eraldaketa Iradik. Ikuspegi antropologikoa interesatzen zaio erizainari, eta haurrekiko eta bere inguruarekiko begirada zabaltzeak gaixotasunak duen dimentsio biologikoaz gain dimentsio soziala hobeto ulertzeko balio izan dio formazioak: “Jakitun naiz haurren bizitza dimentsio ezberdin askok zeharkatzen dutela, eta haurra bere testuinguruan ulertu nahi badugu — eta osasun profesional gisa hori dagokit niri — bere bizitza zeharkatzen duten dimentsio horiek guztiak ezagutu behar ditugu, eta horrek haurra osasunean eta gaixotasunean dagonerako balio digu”.

Beste gako garrantzitsuetako bat taldea izan ohi da 0-6 formazioan, eta baita promozio honetan ere, aurrez aurrekoaren indarrak lagundu die hezitzaileei hazten, Euskal Herriko txoko ugaritako ikasleek taldea aberastu duten neurrian. “Talde-lan izugarria egin dugu — adierazi du Searak —, askatasunezko eta juizio gabeko espazio bat eraiki dugu denon artean, eta hori oso aberasgarria izan da”. Zubiak ere taldearen indarra eta babesa nabarmentzen ditu, “oso pozgarria izan da halako talde handi bat halako gogorarekin eta bihotza zabalik ikustea, konfiantza handia eman dit neure buruarengan eta hezitzaileon lanean. Taldean elkarrenganako errespetua, onarpena, goxo-

tasuna, hau da, maitasunezko tratua azken batean, asko bizi izan dugu, eta jakintzaren eraikuntza, bizipena eta transmisioa ere hala egin ezean, teoriak indar guztia galtzen duela iruditzen zait. **Hik Hasiren** formazioari balio hori ikusten diot”.

Euren lanean “are gehiago” sinesteko eta indarberritzeko balio izan die bizipenak guztiei. “Bakarrik ez gaudela sentitzea, honetan ere herri bat garela ikustea eta adituen eta arituen hausnarketak partekatzea handia izan da”, Iradiren aburuz. “Helburu partekatu bat dugu, eta haurren ongizatea eta edertasuna bilatzeko bidean **Hik Hasi** eta formazioko hezitzaileak eguzki errainuen gozotasuna bezala izan dira”.

**“Taldean errespetua eta onarpena bizi izan dugu; jakintzaren eraikuntza hala egin ezean, teoriak indarra galtzen du”**

Asier Zubiak

**“Batez ere, neure baitan galdera hau ez itzaltzeko gakoa eman dit formazioak: zer hobetu dezaket?”**

Donetz Iradi

# GALDEIDAZU

## ZER PROPOSAMEN EGITEN DU COVID-19AREN LIBURU ZURIAK HEZKUNTZAZ?

Honako artikulu honen jatorrizkoa 'COVID-19aren Liburu Zuri' n argitaratu da. Datozen lerro hauek sarrerakoak dira, eta ondotik, zehazturiko egileek Haur, Lehen eta Bigarren hezkuntzarako egindako ekarpena jasotzen da.



COVID-19ak goitik behera aldatu du gure bizitza 2020ko otsailaz geroztik. Gaixotasunaren ondorioz, azken hamabost hilabeteotan Hego Euskal Herrian<sup>1</sup> 5.000 pertsona baino gehiago hil eta gutxienez 20.000 ospitaleratu dira. Planeta ondorio biologiko, sozial eta ekonomiko ikaragarriak dituen egoera sindemikoa<sup>2</sup> pairatzen ari da. Aurrean geneukan pandemia arriskua gertagarritzat jo bazen ere (Errinozeronte grisa<sup>3</sup>), larrutik ordaindu dugu hain inpaktu handiko mehatxu baterako prest ez izatea. Horregatik, beharrezkoa ikusten dugu egoera konplexu hau ebidentzian oinarritutako begirada kolektibo eta diziplina anitzeko batetik aztertzea. Gertatu dena eremu aztertzeak, ordea, badu arriskurik. Pandemia bati aurre egiteak, gertatu den bezala sindemia bihurtu ez zedin, Osasun Publikoaren ikuspegia eskatzen duen, osasun-esparrutik haratago. Nahiz eta eremu bakoitza berezita aztertu, ez dugu ahaztu behar pertsonen osasuna-

ren eta indarrean dauden edo planteatu behar diren politika sozial eta ekonomikoaren artean dagoen interdependentzia.

Liburu hau *shock* kolektiboaren sentazio hori gainetik astintzeko tresna bezala sortu dugu. Gizarte gisa, lehenik pandemiak eta gero neke pandemiakoak eragindako paralisia gainditzeko helburuarekin. Horretarako, dozenatik gora eremutan gertatutakoari buruzko hausnarketa planteatu dugu, eta, hala ere, ez gara gai izan funtsezko eremu guztiak lantzeko. Begi-bistako hutsune batzuk geratu zaizkigu, baina ez gara hori justifikatzen saiatuko. Lan hau abiapuntu bezala ulertzen dugunez, laster Liburu Zuri hau eduki gehigarriekin aberastuko dela ziur gaude.

Testu hau landu dugun profesionalok, bai mundu akademikokook zein lehen mailako langileok, honen bitartez, gure lankideak eta gizartea hausnarketa ariketa bat egitera gonbidatzen ditugu. Zertan asmatu dugun eta zertan huts egin dugun ulertzeko. Horretarako, gaur egun eskuragarri ditugun ebi-

dentziak eta zuzeneko testigantzak jaso ditugu. Errespetuzko ikuspegi eraikitzaile batetik, etorkizun hurbilerako konponbideak eta proposamenak jartzen ditugu mahai gainean, krisialdi honetatik ahalik eta ondoen ateratzeko. Baita etorkizun ez hain hurbilerako, etorriko zaizkigun beste krisiei hobe aurre egiteko. Lan hau egiteko John Snow Memoranduma<sup>4</sup> hartu dugu oinarri ideologikotzat. Eta hasiera batean ZeroCovid<sup>5</sup> estrategia proposatzea pentsatzen bagenuen ere, COVID-19ri buruzko Liburu Zuriaren lehen edizio honetan konponbide ez hain utopikoak proposatzea erabaki dugu. Irmoki sinesten dugu gardentasunaren, eztabaidaren eta elkarriketa sozialaren premian, eta, horretarako, lan-zirriborro gisa eskaintzen ditugu esparru hauetarako egin ditugun txostenak:

### Osasungintza

- Osasungintza soziosanitarioa
- Neurri ez farmakologikoak
- Txertoak eta txertatze kanpaina
- Osasun mentala
- Ohitura osasuntsuak
- I+G+b integrazioa

### Ekonomia

- Faktore sozioekonomikoak
- Mikro eta mesoekonomia

### Arlo sozialak

- Komunikazio politika
- Datu irekien kudeaketa
- Lege esparrua

### Hezkuntza

- Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza
- Unibertsitate hezkuntza

**A**zken 12 hilabeteek hezkuntza lege organiko zenbaitek baino aldaketa sakonagoak utzi ditugure hezkuntza sisteman epeertain zein luzean. Hezkuntzak lehenagotik zekarzkien egiturazko arazozenbait azaleratu dira, larritu ez gutxitan. 2020ko martxoan ikastetxe ororen erabateko itxiera bat-batekotasunetik eta inprobisaziotik kudeatu behar izan zen. Digitalizazioa ikastetxearen lerroestrategikoetan txertatuta zutenak hobeto moldatu baziren ere, beste kasu askotan egoera berriaren aurrean ez aurreikuspen, ez erantzun neurri ez eta baliabide egokirik ez zen egon<sup>6</sup>.

Administrazioak irakaskuntza alorreko langileei ikasgaiak modu telematikoan eman ahal izateko egokitzapenak egin zituzten eskatu zien. Baina eskolatze birtualeko agertoki berri horretan arrakala digitalaren azalratzea nabarmendu zen, etxeko diru sarrerak, familia eredia (genero arrakala) edota landatar indizeari lotutakoak batik bat. Honen ondorioz, ikasleen % 5 eta % 10 inguruk gailu edota sare digitalerako irisgarritasun arazoak izan zituen<sup>7</sup>.

Ia hasierako unetik azalarazitako bigarren ondorio eta kezka iturria, hezkuntza edukiei eta horien ebaluazioari zein euskarari zegozkionak izan dira. Administrazioak ia etapa guztietan curriculum dekretuek ezartzen dutenaren gaineko egokitzapenak proposatu ditu, ebaluazio irizpideetan aldaketa koiunturalak aginduz. Horren salbuespen izan dira Batxilergoaren 2. ikasmaila eta Unibertsitatera Sartzeko Batxilergoaren Ebaluazioa. EAEko ikasleen % 75aren<sup>8</sup> eta Nafarroako % 25aren komunikazio-hizkuntza euskara da eskoletan, baina etxetan bere presentzia %15 ingurukoa<sup>9</sup> izanik, hizkuntza gaitasunean atzerantzko pausoa agerikoa izan da.

Gainera, eskolen itxierak ekarritako sozializazio gabeziaren ondorioz, ikasleen egoera psiko-emozionalean eragina izan duela frogatu da, urduria-go (% 70,14), tristeago (% 55) edota maizago haserretu direlarik (% 74,66). Horrez gain, ikastetxeen itxierak ondorioak izan ditu bai jarduera fisikoan bai eta elikadura ohituretan ere (% 64,72k gehiago jan du eta % 68,1ak opil industrial gehiago jan du)<sup>10</sup>.

Hezitzaile, maisu-maistra eta

## **NORA SALBOTX** Amaiurko eskolako zuzendaria **MAITE GOÑI HUHEZI**ko irakaslea **IRATXE ESNAOLA ARRIBILLAGA** Deustuko irakaslea **AMAIA ARROYO-SAGASTA HUHEZI**ko irakaslea **MIREN BERASATEGI** Deustuko irakaslea **AINARA GOROSTIZU HIK HASI**ko editorea

irakasleen osasunari dagokionean, irakasleen % 50,6k estresa bizi izan duela adierazi du, horietatik % 14,1ak estres larriaren eta % 4,5ak estres oso larriaren berri eman duelarik. Gainera, irakasleen % 32,2k adierazi du depresio sintomak izan dituela; horietatik % 4,3k sintoma larriak eta % 3,2k sintoma oso larriak deklaratu dituelarik. Generoari dagokionez, emakumeek izan dituzte puntuazio altuenak buru osasun aferetan. Adinari dagokionez, gainera, parte-hartzaile zaharrenek izan dituzte antsietate eta estres maila altuenak.

2020ko udan hartutako neurrien ondorioz, ikastetxeen irekiera orokortuarekin aurrez aurrekoa leheneratu da, hezkuntza araudiaren egokitzapen eta ikastetxeetarako kontingentzia plan eta protokoloen ezartzearekin batera. Ikasturte honetan hezkuntzarako espazioen eta ratioen inguruko kezka azalarazi dira: ratio altuak, segurtasun neurriak zuzen aplikatzeko espazio egokien falta, aire libreko jarduerak inplementatzeko administrazioaren aholkuaren aurrean arazoak, giza baliabide nahikorik eza, haurren arteko harremanetan eta elkarlanean eteteak...

COVID-19aren pandemiak hezkuntzan egin den inbertsio publikoaren handitzea ekarri du, neurri profilaktikoei eta segurtasunari begira, ikastetxeen digitalizazioa, software lizentzia eta gailu teknologikoen erosketari loturikoak nagusiki.

Bukatzeko, hezkuntza ez formala, eskola-kirola eta aisialdiaren eskaintza bertan behera gelditu da lehen une batean ia bere osotasunean, horren ondorio hezitzaile, emozional eta osasunezkoak ebaluatzea zaila izanik

ere, agerikoak direlakoan gara. Pixkanaka berreskuratzen ari den eskaintza honetan egin behar izan diren egokitzapenak ere sakonak dira.

### **Proposamenak**

- Administrazioaren erabaki lege-gile orok adingabeen behar eta eskubideetara (elikadura, hezkuntza, osasun fisiko zein psikikoa, jolasa, pribatutasuna...) egokitu behar du, zeharka edota xedapen gehigarrien bitartez.
- Protokoloak ezartzeko garaian, haurren eta gazteen zurgarritasuna kontuan izan beharko da; beldurra, bazterkeria, antsietatea, isolamendua, elikadura eta beste hainbat ondorio kaltegarri lehen unetik aurreikusiz eta eredu zaintzaileagoetara joz<sup>11</sup>.
- Protokoloak uztartzeko tenorean autonomia maila handiagoa eman ikastetxeei.
- Egoeraren eta datuen komunikazio garden eta egokitua behar da. Batetik, haurrek eta adingabeek gertatzen ari dena ulertu dezaten, eta bestetik, familiek arriskuaren balorazio errealista egin dezaten, eskolara bidali/ez bidali erabaki edo eskolaz kanpoko bizitza antolatze aldera.

### **Antolakuntza**

- Burbuila taldeetan ratioak modu orokortuan jaitsi, etapa eta ikasmailaren bai eta ikastetxearen eta testuinguruaren —ikasleria-jatorria, lehen hizkuntza eta egoera sozio-ekonomikoa— aldagaiak kontuan hartuz. Irakasleen burbuila arteko mugimenduak mugatu ahal izateko

baliabide nahikoak eskaini.

- Isolamenduarekin lagundu. Jan-gela zerbitzua etxean geratzen direnei ere bermatu. Laguntza psikologiko/emozionala eman. Ikasle guztiek etxean baliabide duinak (sare konexio egokia, ordenagailua) izango dituztela bermatuko duen plana definitu.
- Sarrera-irteera ordutegiak mailakatu, burbuila taldeak nahastu ez daitezten. Leihoi irekiak eta musukoak erabili eskola garraioan.

## Hezkuntza-espazioei dagozkien neurriak

- “Ikasle bat -ikasmahai bat” paradigma gaudituko duten neurriak inplementatu, espazio berrien diseinuan, ikastetxeen eraberritzean, altzarrietan eta abarretan inbertsioak eginez.
- Kanpo espazioak lehenetsi eta naturara zabaldu. Aterpeak erabili edo aireztatzeko zabala ahalbidetzen duten karpak jarri eta “espazioa agente hezitzaile” ideiatik abiatuta, kanpo, natura zein barne baliabideen didaktizazioarako baliabideak eskaini. Espazio zabalak probestu<sup>12</sup>: aretoak, liburutegiak, kirolguneak, jolastokiak...
- Ikastetxeetan zaintzari loturiko gaitasunen inplementazioarako espazioak sortu; sukaldeak, garbitegiak, brikolaje eta etxeko erreparazio txikien tailerrak, foroak edota naturaren behaketarako baliabideak (baratzeak, urmaelak, baso eskolak...) erabiliz.

## Baliabideak

- CO2 monitoreak ikasgela guztietan jarri, bentilazioa bermatzeko kalitate termikoa gutxietsi gabe. HEPA filtroak erabili bentilazio naturala posible ez denean<sup>13</sup>.
- Musuko garden homologatuak leudekeenean, lehenetsuz ikastetxeetara banatu, Haur Hezkuntzan eta Berriazko Hezkuntza Laguntza Premia duten ikasleengandik hasita.
- Haurrei egokitutako probak eskaini kutsadura kateak ahalik eta

azkarren etete aldera. Irakasleak ere baheketa zerrendan sartu gelan kasu susmagaririk izan den orotan.

- Euskararekiko konpromisoa, hornitzaileekiko mendekotasunik eza eta datuen jabetza bermatuko duten teknologietan oinarritutako Hezkuntzarako Estrategia Digital Integrala definitzea, non ikastetxe eta ikaslearen digitalizazio osasuntsua bermatzeko baldintza minimoak zehazten diren.

## Euskarari dagozkien neurriak

- Beste erakundeekin elkarlanean, adingabeen euskara gaitasunen zaintzarako sareak inplementatu.
- Euskarazko baliabide teknologikoak, dibulgaziozkoak eta itzulpen zerbitzuak eskuragarri jarri.
- Giza baliabideak indartu norabide honetan.
- Lehen hizkuntza atzerriko hizkuntza bat den kasu orotan berau eskola curriculumean txertatzeko pausoak eman, Hizkuntza Tratuera Bateratuko neurriak ezarri.

## Curriculumari dagozkien neurriak

- Curriculumean zaintza lan pertsonal zein kolektiboari loturiko edukiak txertatu.
- Curriculumean iraunkortasunerako hezkuntza eta gaitasun ekosozialei loturiko edukiak txertatu, naturarekiko esperientzia, zuzeneko jarduerak eta biofilia sustatuko dutenak.
- Ebaluazio hezitzaile eta osasungarria helburu, elkarrekiko loturan, enpatian, osasun eta ongizate integrarean eta zaintzan jarri fokua. Kalifikazioez gain (edo haratago), irakaskuntza-ikaskuntzaren etenaldia ere erregistratu, geratzen denean. Halabeharrezkoa den kasuetan izan ezik, edukiak ohiko erritmoan lantzearen presioaren eta ebaluazio kuantitatiboaren gaineko zama arindu.
- COVID-19aren inguruko haurren bizipenez hitz egiteko eta hausnartzeko espazioak sortu.

## Erreferentziak:

<sup>1</sup> Oharra: Liburu Zuri honetako testu batzuk Euskal Autonomia Erkidegoan kokatu dira, eta beste batzuk Hego Euskal Herriari buruzkoak izan dira. Kasu bakoitzean txostena prestatu duen taldearentzat eskuragarri dauden datuetan oinarritu direnez, erreferentzia-esparruen aniztasun horri eustea erabaki dugu. Jakin badakigu eskumen- eta administrazio-mugek egungo egoerak baldintzatzen dituztela, bai eta dauden arazoei irtenbideak emateko gaitasunari eragiten dietela ere. Hala ere, gure ustez, azterketa, ondorio eta proposamen sektorial gehatu gehienak antzeko aplikagarritasunekoak dira lurraldeko edozein eremuan.

<sup>2</sup> HORTON, R. (2020). “Offline: COVID-19 is not a pandemic”. *The Lancet* 396 (10255) 874. [https://www.thelancet.com/journals/lancet/article/PIIS0140-6736\(20\)32000-6/fulltext](https://www.thelancet.com/journals/lancet/article/PIIS0140-6736(20)32000-6/fulltext)

<sup>3</sup> WUCKER, M. (2016). *The gray rhino: How to recognize and act on the obvious dangers we ignore*. New: Macmillan.

<sup>4</sup> The John Snow Memorandum (2020), <https://www.johnsnowmemo.com>. *Elhuyar Aldizkaria* (2020), John Snow Memoranduma. <https://aldizkaria.elhuyar.eus/albisteak/john-snow-memoranduma/>

<sup>5</sup> Barcelona Institute for Global Health, ISGlobal (2020). “What Is a Zero-COVID Strategy and How Can It Help Us Minimise the Impact of the Pandemic?”. [https://www.isglobal.org/en\\_GB/-/que-es-una-estrategia-de-covid-cero-y-como-puede-ayudarnos-a-minimizar-el-impacto-de-la-pandemia-](https://www.isglobal.org/en_GB/-/que-es-una-estrategia-de-covid-cero-y-como-puede-ayudarnos-a-minimizar-el-impacto-de-la-pandemia-)

<sup>6</sup> UNESCO (2021): “Impacto de la COVID-19 en la educación”. <https://es.unesco.org/covid19/educationresponse>

<sup>7</sup> INE: *Equipamiento y uso de TIC en los hogares - Año 2020*. [https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica\\_C&cid=1254736176741&menu=ultiDatos&idp=1254735576692](https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176741&menu=ultiDatos&idp=1254735576692)

<sup>8</sup> Eusko Jaurlaritzak. *Matrikula: Bilakera-irudiak, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleen eboluzioa 2015-2016...2020-2021*. <https://www.euskadi.eus/matrikula-bilakaera-irudiak/web1-a2hestat/eu/>

<sup>9</sup> Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua: *Oinarritzko datuen estatistika*. <https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/estadisticas/estadistica-de-datos-basicos>

<sup>10</sup> Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde Publikoa (2016). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Euskararen eremu osoa*. [https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI\\_INK\\_SOZLG-EH\\_eus.pdf?1499236557](https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLG-EH_eus.pdf?1499236557)

<sup>11</sup> UNESCO (2020): *Escuela, salud y nutrición: por qué la COVID-19 requiere una reforma de la educación para luchar contra las desigualdades de género*. <https://es.unesco.org/news/escuela-salud-y-nutricion-que-covid-19-requiere-reforma-educacion-luchar-desigualdades-genero>

<sup>12</sup> SISTIAGA, M. eta ANDONO, I. (2021): *Nola baliu genezake natura kompetentziak lantzeko?* [http://www.hikhasi.eus/Albiste-gia/20210212/Nola\\_baliu\\_genezake\\_natura\\_kompetentziak\\_lantzeko](http://www.hikhasi.eus/Albiste-gia/20210212/Nola_baliu_genezake_natura_kompetentziak_lantzeko)

<sup>13</sup> GURDASANI, D. eta ALWAN, N. A. (2021): “School reopening without robust COVID-19 mitigation risks accelerating the pandemic”. *The Lancet*, 397, 1177-1178. <https://www.thelancet.com/action/showPdf?pii=S0140-6736%2821%2900622-X>

# ARGITALPENAK



## ITSASOAREN ATEA

Miren Agur Meabe eta Maite Gurrutxaga

### ELKAR

1870eko negua. Aitak bapore batean utzi du Elora, Ubarroien Uhartera bidean. Hamahiru urteko neskatxari ama hil zaio eta bizimodu berri bati ekin beharko dio Brigita amonaren basetxean. Umezain hasi, eta las-ter estutuko du harremana bertako Ariane txikiarekin. Baina ez Elora, ez Ariane, ez dira neska arruntak.




## JAKIN 243

Askoreon artean

### JAKIN

Gazteen eta politikaren arteko harremanak aztertu ditu Jakin pentsamendu aldizkariak azken zenbakian. EHUKo Parte Hartuz ikerketa taldeko kideek ondu dute gai zentrala. Garai postmodernoetako krisiak aztertu ditu bestetik, Andoni Olariagak, gazteen kultura eta jokabide politikoari testuinguru soziohistoriko bat eskainiz.



## ZEBRA BATEN BARNEAN

Micaela Chirif eta Renato Mariconi

### TXALAPARTA

Batzuetan bizitzari aurrez aurre begiratzen diogu, eta beste batzuetan zeharka. Batzuetan gorriak ikusten ditugu, baita beltzak ere, eta badira egunak bizitza arrosa kolorekoa ikusten duguna. Denok begiratu diogu inoiz bizitzari toki bitxiren batetik... Pentsatu al duzu nola ikusiko ote den bizitza zebra baten barnetik?



## ESKELETO BARREGARRIAK

Janet eta Allan Ahlberg

### PAMIELA - KALANDRAKA

Hiru eskeleto jator atera dira gau batez paseatzera eta jendea ikaratzera. Jolasak eta kantuak irakurgai dira beldurgarriro dibertigarri den liburu honetan. *Amets egiteko liburuak* sailean argitaraturiko liburuak Manu Lopez Gasenik euskaratu du. Kolore biziko argitalpen hau ikusteko eta entzuteko ez ezik ukitzeko modukoa ere bada, azala bederen.




## BERTSO EGUNA

Itziar Olaizola eta Jokin Mitxelena

### DENONARTEAN

*Kristiñeren ibilerak* izeneko liburuak hasitako bideari jarraitzen dio bigarren ale honek. Aurrekoa bezala, 7-10 urteko haurrei zuzendutako liburu da eta Kristiñe haurra du protagonista nagusi. Ale honetan, Bertso Eguna egingo da Kristiñeren eskolan. Neska-toa urduri dago berak bertsoak idazten baititu eta, gainera, Euskal Herriko bertsolaririk ezagunenak etorriko dira.



## HIZKUNTZA GOGOAN

Beatriz Fernandez

### EREIN

Jakin-minak zehazten du ikertzaileen lanaren norabidea. Dena delako gaiari buruz arazo bat aurkitzen da, galderak sorrarazten ditu eta erantzuna ematen zaie. Halaxe gorpuzten da zientzia, eta zientzien artean, hizkuntzalaritza. Zer da hizkuntza? Haur basatiek hizketan ikas dezateke? Gisa honetako galderak eta ikerkuntzak eman dituen erantzunak biltzen dira liburu honetan.

# PROPOSAMENA

## Situ-akzioak

### Esperimentazio sentsoriala jolasaren bitartez gozatzeko proiektua

'Situ-akzioak' ekimenak ateak zabalik dauzka apiriletik ekaina amaiera arte Tabakaleran. Zortzigarren edizioak esperimentazio sentsorialerako espazio bat proposatzen du, jolasaren bitartez hurrek eta helduek elkarrekin goza dezaten. Tabakalerak espazio berri bat aurkezten du aurten Julio Le Parc-en obran inspiratuta, artista argentinarrentzat ezinbestekoak diren elementuak abiapuntutzat hartuta: argia, kolorea eta mugimendua.

**A**pirilaren 15ean ireki zituen ateak *Situ-akzioak* ekimenak Donostiako Tabakalerako lehen solairuan. Proiektuaren zortzigarren edizioan Maushaus kolektiboa izan dute bidelagun eta oinarri bezala Julio Le Parc artistaren lana hartu dute. Nerea Hernandezek, hezkuntza teknikariak eta proiektu honen arduraduranak horrela laburtu du *Situ-akzioa* proiektua bera zer den: “Proiektuak esplorazio sentsorialerako jolas proposamen irekiak diseinatzea planteatzen du. Sortutako espazio txiki eta handien parte-hartzea ahalbidetuko dutenak, txikienak beren ikerketaren bidea erabakitzeko espazioa bideratuz”.


Espazioa astero, ostegunetik igandera bitartean dago irekita ekainaren amaierara arte, eta jolaserako paisaia irekiak proposatzen ditu, elkarrekin eraiki, eraldatu eta jolasteko aukera ematen duten eszenatokiak aurkituko ditugularik bertan. Julio Le Parc-en



obran ezinbestekoak diren elementuak dira abiapuntua: argia, kolorea eta mugimendua. Artista argentinarren lan-prozesuan agertzen diren kontzeptuetan oinarritutako sei sektoretan banatuta dago eremua: kolorea eta bariazioak; islak, biderketak, alterazioak; mugimendua, jolasa, lekualdaketa; mugikorak; argiaren deskonposizioa; eta koloretako itzalak.

Ekimenaren arduradunak azaldu

dutenez, “sei guneetako bakoitzean jolasa eta esperimentazioa ahalbidetuko duten hainbat elementu jarriko dira, hala nola: Newtonen diskoak, gainazalen konbinazio desberdinak, kristalak, metalezko xaflak, metakrilatoa eta bestelako material batzuk, kaleidoskopioak, agamografoak edo Agam tolestura”. Betiere argi utziz *Situ-akzioak* proiektuaren helburu orokorrak jolas librea eta esperimenta-



### 'Situ-akzioa', esperimentazio sentsoriala jolasen bidez

**Lekua:** Tabakalera (Donostia)

**Norentzat:** Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikaslelentzat pentsaturiko proposamena da.

**Noiz:** ekainaren 20a arte

**Ordutegia:** ostegunetik igandera.

Asteazkenetik ostegunetik eskola eta elkarte taldeentzako.

Ostegun eta ostiral arratsaldetan 17:00-19:00 publiko osoarentzat.

Igandetan 11:00-13:00 eta 17:00-19:00 publiko osoarentzat.

**Prezioa:** doan.

**Izen-ematea:** [hezkuntza@tabakalera.eus](mailto:hezkuntza@tabakalera.eus)

**Informazio gehiago:** <https://www.tabakalera.eus/eu/8-situ-akzioa-esperimentaziorako-paisaiak>

zio sentsoriala ahalbidetzea direla.

Ekimenaren zortzigarren edizio honetan eta arestian esan bezala Maushaus arkitektoen kolektiboak aktiboki parte hartu du Hezkuntza taldearekin eta Medialab Tabakalera-ekin batera, elkarlanean garatutako sormen-prozesuan. Maushaus arkitektura eta artearekin lotutako ideien laborategia da. Jolas, ekintza eta performancearen bidez transmititzeko moduak bilatzen ditu, eta, horrez gain, guztiok barruan daramagun jolasteko gaitasuna ikusarazten du. Jolas libreko saio hauek 45 minutuko iraupena izango dute, eta haurrei eta helduei zuzenduta daude.

Berez familiei eta hezkuntza komunitateari zuzenduta egon arren, curiositatea daukan edozein pertsonak parte hartu dezakeela ohartarazten du Hernandezek. Hezkuntza zentroei dagokienez, astean zehar irekitzen dizkie Tabakalera-ateak ikasgelei.

Bereziki Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haurrentzat pentsaturiko espazioa da.

#### Familietatik eskolara

*Situ-akzioa* proiektua nondik nora sortu zen azaltzerakoan proiektuaren arduradunak gogorarazi du ekimen honek aurrekari bezala *0-6 bizi!*

*Proiektua* duela, "berau, familiekin batera pentsatu, diseinatu eta eraikitako espazio bat da. Prozesu parte-hartzaile honen ondoren sortu zen *Situ-akzioak* proiektua, familien parte-hartze aktiboa bilatuz eta esperimentatzeko espazioak proposatzeko asmoz". Prozesu guztia 2018ko martxoan hasi zen, Tabakalera-ko Hezkuntza eta laborategiek sustatutako sorkuntza-prozesu batetik. Prozesu horren helburu nagusiak praktika artistiko garaikideekin eta ikaskuntzarekin lotutako prozesuak garatzea izan zen; bai eta elkarrekin bizitzeko, sor-

mena lantzeko eta ezagutza partekatua sortzeko espazioak eratzea ere. Urte hauetan zehar, proiektua Tabakalera-bera esperientziak, interesak, beharrak eta denbora partekatuzera hurbildu diren familiekin lankidetzan garatu da.

Aurretik beste zazpi edizio izana ditu proiektu honek. Aurrekoetan proposamen espazialek asteburu bakarra irauten zuten. "Espazioa epe luzean irekita mantentzeko planteatzen dugun lehen aldia da", dio Hernandezek.

Orain aurkezten den espazioa diseinatzeko eta sortzeko lehen tailerrak 2020ko martxoaren hasieran egin ziren. Une hartan, COVID-19ak eragindako pandemiak proiektua geldiarazi zuen, baina konfinamendu-aldian prozesuan inplikaturako eragileek modu deszentralizatuan lanean jarraitu zuten. Antolatzaileentzat urtebete geroago bada ere, berri pozgarria da gune berri hau aktibatzea, txiki eta helduek elkarrekin jolas dezaten.

# ATZEKO ATETIK



## HIK HASI BEHAR GENUEN, BEHAR DUGU

**IÑAKI GONZALEZ MURUA**

HIK HASIKO HARPIDEA ETA LAB-EKO IRAKASKUNTZA  
SAILEKO ARDURADUNA IZANDAKOA

**G**ipuzkoako Irakasleen Elkar-teak sortutako aldizkari pedagogikoak, euskaraz argitaratzen zen bakarrak, bere azken alea argitaratu zuen 1993an. Handik bi urtera, hutsunea betetzeko, **Hik Hasi** aldizkaria martxan jarri zuen irakasle talde zabal batek; baina ez bakarrik hutsunea betetzeko asmoarekin, baita euskal hezkuntzari buruzko informazio, eztabaida eta elkargunerako bitartekoa izateko xedearekin ere. Ezaugarri hauek hartu zituen abiapuntutzat: euskalduna, nazionala, hezkuntza komunitateko partaidea guztiena, baterakoaia, irekia, plurala eta independentea. Argitalpenarekin batera, jardunaldiak eta mota askotako jarduerak sortu ziren urtero.

25 urte hauetan, 1991n EAEn izan zen Hezkuntzako Itun Politikoa (EAJ/PSOE/EE), 1993an Euskal Eskola Publikoaren Legea martxan jartzeko abiapuntua izan zenak, baldintzatu egin du hezkuntzako eragileen jarduera. Ondorio argi-ilunak izan ditu: batetik ikastolen mugimenduaren higadura ekarri zuen, eta ez zuen eredu publiko berririk sortu; eta, bestetik, hezkuntzako eragileak gai izan gara ikastolen mugimendua

egonkortzeko eta unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan, bereziki sare publikoan, euskarazko murgiltze-eredua nagusi bihurtzeko. **Hik Hasik** Hezkuntzako Itun Sozialaren aldeko hautua egin du, eta Euskal Hezkuntza Komunitatea erdigunean jarri du, hezkuntza-eragile ugariarekin zubigintza-lana eginez.

**Hik Hasik** 2017an *Kalitatezko hezkuntza bermatzeko zoru pedagogikoa eta etikoa: hezkuntza hobetzeko gakoak* proposamena aurkeztu zuen eta 2020ko azaroan *Euskal Herriko Hezkuntza aurrera begira: elkarrekin, guztiontzako hezkuntza-eredu hobe baten alde*. Biek helburu argia dute: Euskal Herriko Hezkuntzako Itun Sozialaren bidea erraztea, errealitate administratibo desberdinetan erantzun egokiak ematea hartuta oinarritzat. EAEn Hezkuntzako Itun Politikoa egin zenetik 30 urte pasatu ondoren, edozein lege-proposamen berrik Itun Sozialean ardaztuta egon behar du, ezinbesteko baldintza baita hori Euskal Hezkuntza egonkortzeko eta abagune politikoen gainetik Hezkuntza Komunitateari bermeak emateko.

25 urte hauetan, Euskal Hezkuntza Komunitatearen erreferentzia bilakatu

da **Hik Hasi**, bai ikastetxeetan eta bai Unibertsitateko Hezkuntzako fakultateetan. Aitzindari bihurtu da irakasleen prestakuntzan. Sortu zenetik, une bakoitzean zeuden mugimenduekin elkarlanean aritu da beti: *Sortzen, Euskal Herriak Bere Eskola, Euskal Curriculumaren diseinua*... Eta, 2012an, **Hazi Hezi** proiektua abiatu zuen, hezkuntza komunitateari bide berriak zabaltzeko.

Euskal Hezkuntza Sistema sortzeko eta eraikitzeko lanean, berebiziko garrantzia dute ikastetxeetako eta, oro har, hezkuntza komunitateetako esperientziak. **Hik Hasik** lan-ildo berriak zabaldu behar ditu ikerkuntza aplikatua eta transferentzian; horrela, hezkuntza komunitateen eta unibertsitateen arteko elkarlana erraztuko eta sostengatuko du.

Hezkuntzako teknologiaren eta digitalizazioaren aurrean, euskarazko online prestakuntza-proposamen erakargarriak eta berriak garatu behar dira hezkuntzan eta naziogintzan diharduten erakundeen artean (**Hik Hasi**, UEU...).

Bizitza eta lan oparoa izango du **Hik Hasik** hurrengo 25 urteotan. Ziur nago.

# IRRIEN LAGUNAK

## EGIN HARPIDETZA!

ETA JASO ELKAR DENDETAN  
ERABILTZEKO 10€-KO BONOIA!

**Irria aldizkaria ezagutu nahi duzu eta oraindik ez zara harpide?**

Bete [www.irrienlagunak.eus](http://www.irrienlagunak.eus) webgunean topatuko duzun formularioa eta azken bi aleak jasoko dituzu deskargatzeko moduan.

URTEAN  
**49€**



HARPIDETZA EGITEKO AUKERAK:

Telefonoz: (0034) 943 304 332 zenbakira deituz

E-posta: [harpidetza@irrienlagunak.eus](mailto:harpidetza@irrienlagunak.eus) helbidera idatziz.

[www.irrienlagunak.eus/harpidetza-n](http://www.irrienlagunak.eus/harpidetza-n) izena emanaz.

Baliatu gure eskaintza berezia eta jaso urtean iRRiAren 10 ale etxean!!

# UDAKO TOPAKE TAK 2021

Uztailak 5, 6 eta 7, Donostian

[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)



## IKASTAROAK:

- Budapesteko PIKLER-LOCZYko 0-3a
- Haur Hezkuntzako haurren ekintzen zentzuaz
- Jolasaren bidezko heziketa sortzailea
- Eskoletako kanpo espazioak jolaserako espazio al dira?
- Askatasuna: mugatutako errealitate batean, desioak gauzatzeko tresna
- Dislexia
- Heriotzaren lanketa
- Mugak jarri autoestimua zainduz
- Bitartekaritza bost pausotan
- Kontaidazu istorio bat
- Hitzak gorputzera edo zer egin haur poesiarekin
- Antzerki teknikak: hezkuntzarako tresna pedagogikoa
- Estresa eta antsietatea COVID-19aren garaian
- Gatazkak ulertu eta eraldatzeko gakoak
- Familia eta eskolaren arteko elkarlana ikuspegi sistemikotik
- Zuzendaritzarako formakuntza sistemikoa
- Irakasleak indartzeko baliabideak, gaur egungo egoeratik abiatuta
- Pedagogia sistemikora hurbilketa
- Zirimiri: oinarritzko yoga teknikak ikasgelatan ongizatea lantzeko
- Yoga eta kontzentrazio teknikak eskolan
- Yoga eta ipuinak uztartuz
- Meditazioa oinez naturan
- Mindfulness-a (Arreta Osoa) eta gogo-aldartearen kudeaketa hezkuntzan
- Gorputza eta bizipena: baliabide pedagogikoak
- Barnekotasuna hezkuntzan: norberaren zaintzak besteak zaintzea dakar

www.ta.zabal.eus



Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

25  
hh  
URTE  
hikhasi